

...eta
Kitto!

2019-VI-14

1104 zkia.

Kaleko mugimenduak

Teilatuak Fatxadak Sukaldeak
Gremioen koordinazioa etab.



JORGE VEGA S.L.
IGELTSERITZA

Tel. 943 20 83 26 / 607 20 12 23 Tel./Faxa. 943 20 77 34
F. Calbetón, 4 - 3. solairua jorgevega.eibar@gmail.com



gremioen gida



943-206776



ANTENAK

BALATZ

Instalakuntzak eta konponketak antenak

Bidebarrieta, 37
balatz@euskalnet.net

Tfnoa. 943 20 05 08
Faxa. 943 20 04 94

ELEKTRIZITATEA

egoluz

ELEKTRIZITATEA S.L.

Ego Gain, 9 ac
ego.luz@hotmail.com

677 51 24 62
630 95 73 45
943 20 06 97

IGELTSEROAK



Eraikuntza
Erreformatz
Igeltseritza

irazabal

Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobez
goza dezazun

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

Ego Gain, 2 - Bac
Tfnoa. 943 12 73 50
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN PROFESIONALAK



TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

24 orduko
urgentziak

610 532 922

ARKITEKTOAK

olatz etxeberría martínez ARKITEKTOA
olatz@arquitectura-ei.com Tel. 649978832

estudio etxeberría

arkitektura, hirigintza eta periferiazko
erakin eta obretako kudeaketa teknikoak

Mekola, 7 - behea
Tel/Fax 943 70 21 12 www.arquitectura-ei.com



ERAIKINEN MANTENUA



I.T.E. INSPECCION
TECNICA DE
EDIFICIOS

ERAIKINEN
IKUSKAPEN
TEKNIKOA

E.I.T.

info@ajtoficina.com tlf. 943 20 12 50
AJT Zihurtasuna S.L.p.
Barrena, 6 - behea ezk.

KRISTALAK



TAILERRA: ERREKATXU, 3an

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@cristeriaacha.com

ERAKUSKETA

eta faxa: 943 203 903

Arikixaneko Zubian

AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko arotzgia
baita toloak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 www.ulmar.net

ERAKUSKETA

EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ERREFORMAK



PROIEKTUAK - ERREFORMAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA

ROSARIO, 15 -ELGOIBAR-

605 713 168

943 744 019

PINTURAK

baglietto

PINTOREAK

Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa

Errebal, 21
Tel: 943 201 922

www.bagliettoeibar.com
bagliettoeibar@kaixo.com

GARBIKETAK

Limpieza Multiservicio Eibar

Superficie
mota guztiak
garbiketa eta
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 031 082

Mobila 688 609 171

www.multiservicioeibar.com



Arragueta, 18-2.D

www.kolorlan.com 667 54 89 16



KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L.

MALVAR PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea

Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900

Mobila. 656 784 396



Euskara Elkarteak

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarteak.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18 /
603 598 285.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkarte@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:
Malen Jainaga
eta Malen Illarramendi

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Aragoitia
eta Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

TELEFONOA: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:
Pexels.com

BANAKETA-ARDURA:
Mohammed El Ghabali

TIRADA: 8.150 ale

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* k ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

eskutitzak

– Urkiko jaietan elkarbizitza eta kirola bultzatuz –

Ekainaren hasierarekin bat, Eibarko auzoak jaietan murgiltzen dira. Oraingo honetan Urkiko bizilagunei egokitu zaigularik, lerro hauen bitartez egitarauko jarduera ezberdinak aurrera ateratzen laguntzen digutenei eskerrak eman nahi dizkiegu. Bide batez, gure auzora etorri zareten guztiok eta ekintza ezberdinetan parte hartu duzenok gurekin disfrutatu izana espero dugu.

Auzoko gazteentzat pilota partiduak eta Txiki-krosa prestatu dugu, eta umek kirola egiteko aukera izan dute. Nagusiek, berriz, XI. Galdaramiño igoeran salto-ka ibili dira, Atzegiko martxarekin batera.

Antolaketa lanetan lagundu diguzuen guztiei mila esker: Eibarko Udala (udaltzaingoa), Eibarko Kirol Patronatoa, Eibarko Klub Deportiboa (mendia eta atletismo sailak), DYA, Eskarne jatetxea, Salaberria bitxidenda, Garajes Garcia, Lacturale, Eroski, Coca-Cola, Kirolprobak, Arrate Irratia, Radio Eibar eta ...eta kitto! astekaria.

Urtero legez, eskertza boluntario guztiei egin nahi diegu, eurek egiten duten lanean oinarritzen baita Urkin sortzen saiatzen garen elkarbizitza eta kirolarekiko harreman osasuntsua. Mila esker eta datorren urtera arte!

Galdaramiño Igoera. Urkiko Jai Batzardea

– Kaixo, gazte! –

Mezu honen bidez gaur egingo dugun Debabarreneko alternatiben azokara gonbidatu nahi zaitugu.

Gaur egun sistema heteropatriarkal kapitalista honek gazteok prekarietatera kondenatzen gaitu (Ikasketak amaigabeak, gurasoen etxetik ezin aldegin, lan eta soldata ez duinak edukitzea, kalitateko aisialdirik ez izatea). Gutxi batzuk aberastuz gure kontura. Alternatibak egon badaude eta sistemak alternatibak erakitzen bidean burutzen dugun lana isilarazteko bere erremintak martxan jarri arren, guk hauei ikusgarritasuna eta merezi duten espazioa eman nahi diegu.

Ikusgarritasun hau bermatzeko ekainaren 14rako Debabarreneko alternatiben azokara antolatuko dugu. Bertan bizi eredu berrien praktikak, ekonomia eredu etikoak, eskaintzen duguten errealitatea aldatzeko prest dauden gazte mugimenduko kideak eta beste hainbeste elkartuko gara, eta zu ere arratsalde hau gurekin pasatzera gonbidatu nahi zaitugu.

Behin eta berriz ondo bizi garela eta honetara moldatu behar dugula esaten diguten arren, gazteok argi daukagu ez dugula hau onartuko eta bizi-proiektu duin bat nahi dugula, beraz, alternatiben eraikuntzaz bizi-tzak erdigunean jarri eta kapitalari planto egiteko borroka batzeko gonbita egiten dizuegu!

Azoka honetaz gain, "Bizitzak BIZIARAZI!" lema-pean, Euskal Herriko gazteok ekainaren 13, 14 eta 15ean prekarietateari aurre egiteko ekintza desberdinak antolatu ditugu eskualdez-ekualde, Euskal Herriko txoko guztietatik, zerumuga berri baterantz: martxan, bizitza duina irabaztera! Beraz, ekainaren 14ko Alternatiben Azokara etortzeaz gain, ekainaren 15ean Gasteizera joateko gonbita ere egin nahi dizugu, asanblada, tailerrak, herri-bazkaria, martxa, ekitaldia... Prekarietateari aurre egiteko, martxan!

Agurrrik goxoenak,

Debabarreneko Euskal Herrian Bizi dinamika

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MIRA IRITXI. - Harritu, miretsi. "Gure ama, bere begi argixegaz, danari mira eritxitta bizi zan".

MIRA IZAN. - Miretsi, harritu. "Ez dot nik mira atzerriko jendiak besteko jauneri gerria egittia, etxian eskerrik gehixen zor detsenak azpi-janian dittuenian".

astean esanak

"Unibertsitate ikasketak dituzten gizonezko eta emakumezkoek berdin irabazten hasten dira lanean, baina handik 15 urtera, emakumezko horiek gizonezkoen %64 irabaziko dute. Non dago gakoa? Seme-alabak izatean. Adibide bat: seme-alabak dituen bikote baten kasuan, enpresak diru gehiago eskaintzen badio bezeroekin edozein ordutan prest egoten denari, baina uste duzue hartuko duela lan hori? Hor dago, batez ere, arazoa. Eta soluzioa gizonezkoak seme-alaben zaintzan gehiago inplikatzeko dago"

(CLAUDIA GOLDIN, HARVARD-eko IKERTZAILEA)

"Bi belaunalditan ikusiko dugu nola sukaldeak desagertuko diren etxeetatik: mikrouhin labea eta hozkailu-izozkailua besterik ez. Asko ibili naiz Mexikon, Perun, Estatu Batuetan, Thailandian... eta jendeak ez du etxean kozinatzen. Etorrizuna halakoa izango da. Janaria prestatu nahi dugunean elkarte gastronomikora edo peñara joango gara hemen, baina oro har hori desagertzera doa. Dena erosiko dugu egina; berotu eta kito. Lehia izango da prezioa eta kalitatearengatik, eta ikusiko da nork baloratzen duen janari ekologikoa eta kalitatezkoa, eta nork beste ezaugarri batzuk. Ea profesionalon lana baloratzen den"

(IÑAKI ANDRADAS, SUKALDARIA)

"Euskal herrian eraikitzen ari diren AHT zatiaren kostua 10.000 milioi eurotan estimatzen da eta, irakurri nuenez, 2024an abian jarri nahiko lukete agintariak, hiriburuen arteko ibilbidea zortzi euro kobratuz; azken datu horiek harri eta zur utzi naute. Eraikuntza lanekin kezkatuta nengoen, baina 2024an zerbitzua abian jarriko dela ziurtatzea eta urtero 24 milioi euro bilduko direla esatean (inbertsio ekonomikoa hondamendi ikaragarria bihurtuz), lur jota sentitzen naiz eta, herritar eta euskaldun bezala, baboa, ia inork ez duelako esan inbertsioaren kapitala, interesak ahaztuta, ordaintzeko gutxienez 400 urte behar direla. Segurtasun koefizientea?"

(JOXERRA AIZPURUA, INDUSTRIA INGENIARIA)


Domekara arte egongo da martxan Garagardo Ferixa



Martitzen arratsaldian inauguratu eben Untzagako karpán Eibar Rugby Taldia ren eskutik domekara arte martxan egongo dan 17. Garagardo Ferixa eta ekitaldixan Ixa Rodriguez boxeolariari omenaldixa egin zetsen. Domekara arte egunero zabalduko dabe, 19:00etan, eta gaur afaltzeko orduan zuzeneko musikia eskinduko dabe Parrapas taldekuak. Gaiñera, astebururako beste jarduera berezi batzuk preparau dittue: bixar andrazkuak rugby partidua jokatuko dabe Unben. Goizeko 10:30xetatik 13:30xetara zinta rugby txapelketia (kontaktu barikua) egingo dabe, nahi daben guztiendako eta duan. Eta, jardunaldixa bi-ribiltzeko, 14:30xetan emakumien bazkarixa egingo dabe Untzagako karpán. Eta domekarako, Katubeltz eta Marcan Huella alkartiekin alkarlanian hainbat jarduera antolatu dittue: 12:30xetan katu eta txakur- ren desfilia egingo da, umiendako jolasak egongo dira eta paella- jana solidarixua (5 euro) hartuko dau karpak.

Unibertsitate Laboralaren liburua presentauko dabe gaur

Gaur arratsaldian, 19:00etan presentauko dabe udaletxeko pleno aretuan "Eibarko Unibertsitate Laborala 1968-2018", ekitaldi irekixan, 50. urtemugaren harira kaleratu daben liburua. Bixarko, barriz, programaziño zabala preparau dabe ikastetxiaren mende erdixa ospatzeko. Goizeko 11:30xetan atzera be liburua aurkeztuko dabe Unibertsitate Laboralian (San Andres aretuan). Horrekin batera, 11:00etan eta 12:00xetan ikastetxian bisita gidatuak egingo dittue (taldiak erdiko eraikiñeko sarreran osatuko dira) eta 11:00etatik aurrera sagardaua eta txorizo egosixa hartuko dabe, trikitixa doiñuak lagunduta. 50. urteurreneko oroitzapen ekitaldixa, berriz, 13:00- etan hasiko da (ekitaldi are- tuan) eta talde-argazkixa 14:15-etan egingo dabe, jarraixan han bertan egingo daben bazkarixa hasi baiño lehen. Ospakizunak arratsaldian segiduko dau, mu- sika eta dantzaldixarekin.



Gaur aurkeztuko dabe Eibarko epaitegixan frankismuaren kontrako kereilla

Frankismuaren krimenen aurkako Euskal Plataforma - Eibar- ko Memoria Taldiak aditzera emon dabenez, "2016ko azaruan Eibarko Udalak aho-batez onartutako erabagixari jarraipena emonda, eta denpora guzti honetan hainbat ikerketa, testigantza eta dokumentaziño prestau ondoren, gaur eguardixan aurkeztu dau Udalak, herriko biktima batzuekin batera, frankismuaren kri- menen kontrako kereilla kriminala Eibarko epaitegixan. Horrekin batera, jurisdikziño internazionalaren agindueri jarraituta, Ar- gentinako Epaitegi Federalian Servini epailliak zabalik dakan 4591/10 Kereillarako be Udalaren salaketia bialduko dau".



AMAIA EGIGUREN AGIRREGOMEZKORTA

2019ko ekainaren 11n hil zen, 57 urterekin

*Zu joan zara, baina zureganako gure maitasuna ez.
Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun ilusioa eta bizipoza.*

ZURE FAMILIA



Hasi da udako denboraldixa kanpoko igerilekuetan

Aurreko zapatuan zabaldu zittuen Ipuruako kanpoko igerilekuak, iraillaren 14ra arte iraungo dabena udako denboraldixari ekiteko. Egunero goizeko 10:30xetan zabalduko ditue igerilekuak, baiña aurreko urtiotan baiño ordu erdi geruago, 20:30xetan itxiko ditue ekaiñian eta uztaillian. Abuztuan eta iraillian, barriz, goizeko 10:30xetatik arratsaldeko 20:00ak arte egongo dira zabalik.



Primerako jaixak ospatu zittuen Urkin

Aurtengo jaixak giro ederrian ospatzeko moduko eguraldixa izan dabe Urki auzokuak, iaz eurixak jaixa ia zapuztu eta gero. Barixakuan hasi eta domeka illuntzera arte musikia, jolasak, kirol probak, erromerixa, kalejirak, lehiaketak, kontzertuak... iñor ez aspertzeko moduko jarduerak izan zittuen auzokuak, baita jaixarekin bat egittera Urkira juaten animau ziran beste guztiak be.

autuan

BIXAR IZENDATUKO DIRA UDALBATZA ETA ALKATIA

Hauteskundietarako Araubide Orokorraren Lege Organikaren 195. eta 196. Artikuluak jasozten dabena beteta, bixar goizeko 09:00etan hasiko dan plenuan izendatuko ditue datozen lau urtiotarako Udalbatza barrixa eta Eibarko Alkatia. Hautatutako ziñegotzi guztiak deittu ditue bixarko plenora.



JUBILAUEN KONZENTRAZIÑUA

Asteroko martxan, astelehen eguardixan pensio dui eta publikuen aldeko konzentraziñua egingo dabe herriko pensionista eta jubilauak, baiña oinguan, Untzagan barik, Seguridade Sozialaren bulego parian alkartuko dira protesta egitteko.



centro médico eibar

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreak / 1. solairua
☎ 943 12 02 00 – 943 12 02 04

- | | |
|--------------------------|-----------------------------|
| 1) Kardiologia | 10) Radiologia |
| 2) Zirugia | 11) Urologia |
| 3) Dermatologia | 12) Traumatologia |
| 4) Dietetika / Nutrizioa | 13) Koloproktologia |
| 5) Análisi Klinikoak | 14) Erizaintza |
| 6) Ortodontzia | 15) Foto-depilazio Unitatea |
| 7) Otorrinolaringologia | 16) Psikologia |
| 8) Psikiatria | 17) Neurofisiologia |
| 9) Barne Medikuntza | |

BERRIA

JATORRIZKO KAFEETAN ESPEZIALIZATUA

MUNDUKO KAFE ONENAK IZENDATUTAKOAK

Txuleta



menua

Estaziño, 7
943-207032

AUKERAKO
40 TE
BAINO
GEHIAGO

ASTELENA
GASTROTEKA

Urdaiazpiko Iberikoak
Labanez ebakita

Iberikoen taulak
Gazta Beroak

TUTULUMENDI



IDURRE IRIONDO

Javier Nuñez PPko alkategaixak baja emon eta politikia laga dau

Birritan Eibarko alkategaixa, 24 urtian Gipuzkoako PP alderdiko kidia eta 16 urtian ziñegotzi kargua bete dabean Javier Nuñezek politikagintza albo batera lagatzia erabagi dau. Diñuanek, erabagixa "tristia eta mingarrixa" egitten jako, "baiña batzuetan egoeriak berak beste alde batera bideratzen zaittu eta hobe da erronka eta aukera barrixak biltzia". Aurreko maiatzeko Udal Hauteskundietan bere

burua bigarrenez alkategai modura aurkeztu eta gero, eta bigarrenez Udalian ordezkariarik lortzen ez ebela ikusitta, hausnarketia egin eta alderdixan baja emon eta politikagintzatik aldentzia erabagi dau.

Gregorio Ordoñezen hilketia eta gero, 1995ian afiliatu zan Nuñez PPra. 1999an Soroluzen alkatetzarako hautagai modura aurkeztu eban bere burua eta 8 urtian ziñegotzixa izan zan hango Udalian.

2007xan Elgoibarko zerrendetan jua zan eta hango Udalian alderdiko bozeramaillia izan zan, 2015ian Eibarko alkatezarako hautagaitza aurkeztu eban arte. Bere berbetan, "urte honetan guztietan Soroluzen eta Elgoibarren nigan konfidantza izan eben herritarren bizitza hobetzeko biharrian jardun dot eta gauza bera egin dot Eibarren alderdiko koordinatzaile modura emon ditudan urtietan, neretako, alder-



dixaren gaiñetik, nigan siñestu dabean herritarrei kale ez egittia egon dalako beti. Horregaittik eskerrak emon nahi detset herritar horri, baita urte honetan biharrian egin ditudan lagun guztieri be".

Ramadanaren amaieria ospatzeko jaixa egin zan Untzagan

Aurreko astian amaittu eben Ramadana mundu guztiko musulmanak eta, horren aitzakixarekin, Eibarko Gazte Safa eta Toyor Al Jannah alkartiak Eid-fitr, eibartar guztiendako zabalik Ramadana amaierako jaialdixa ospatu eben domekan Untzagan. Eguardirako prestatu eben egitarauaren baitan, bestiak beste, dastaketa popularra, henna taillarra eta Dakka Marrakchia musika taldiaren emanaldixa egin zittuen.



Udalak Brocoli enpresari ordainketak egunian dittuala egiaztatzeko eskatu detse

Eibarko Udalak Brocoli garbikuntza enpresari 10 eguneko epia emon detsa bihargiñeri egin biharreko ordainketak eguneratuta dittuala erakusten dabean agiri-sorta erakusteko. Ordainketetan irregulartasunak zittuala egiaztatu eta Udalarekin zein enpresarekin hainbat billera egin eta gero, bihargiñak Udaltzaren aurrian salatu eben euren egoeria, ELA sindikatuaren babesarekin eta, Udalak hala eskatuta, hurrengo egunian irregulartasun horren inguruko xehetasunak atzera be bialdu zittuen. Udalak egin dabean eskaerian garbikuntza enpresakueri gogora ekarri detse salaketiak "oso larrixak" izan leikiatzela.

Atzegi alkarteko famelixak eskualde maillako jardunaldixa egin eben

Urtero moduan, aurreko zapatuan Atzegi alkarteko Debabarreneko famelixak Eibarren batu ziran, eguna jai giruan igaro eta alkarrekin bazkaltzeko. Argazkixan ikusten dozuen taldiak primerako eguna pasau eben eta datorren urtian errepikatzeko irrikitan agurtu ziran.



Alternatiben Azokia egingo dabe gaur arratsaldian

Eibar eta Ermuko Ernaik antolauta, gaur arratsaldian, 17:30xetatik aurrera Debabarreneko Alternatiben Azokia egingo da Eibarko Bizikleta Plazan (eurixa egin ezker, Topalekuan). Antolatu daben egitarauari jarraituta, EH Beer Koop-en eskutik garagardo-dastaketia hasiko da 17:45etan, 18:30xetan hausnarketarako tartia zabalduko dabe, 19:00etan alternatiben bira hasiko da eta, agurtu baiño lehen, 20:00etan solasaldixa egingo dabe Olatukoop eta Koop Fabrikako kidiekin.



Zapatua zurigorritz jantzi eben gurian batutako Athletic-zaliak

Zapatukua egun haundixa izan zan Athletic taldeko zaletuendako zein Peña Txinberaren kidiendako, IV. Gipuzkoa Zurigorria eta Peña Txinberaren 20. urteurrena ospatzeko egun osorako egitaraua prestau eben eta. Goizeko 11:00etan txupinazuarekin hasi eta gabeko ordu txikixetan amaittu ziran ospakizunak: umiendako puzgarrixak, Eibarko Trikitilari Gaztiak lagundutako trikipoteua, bazkarixa, herri-kirolen erakustaldixa, Ustekabe txarangak girotutako txikiteua... eta, eguna biribiltzeko, Los Chimberos, Eirband eta Mugi Panderoa taldien kontzertuak, bata bestiarene atzetik.



Peña Txinberak oso pozik dagoz jaixarekin eta jendiak emondako erantzunarekin. Bestalde, zozketan saritutako zenbakixak honetxek dira: 81, 56, 193, 361, 188, 57, 381 eta 279.



Funeraria-Ehortzetxe
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>Bulegoa Bidebarrieta, 20</p>	
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	

CAPI Bidebarrieta, 5
 943 201 547
www.capiestetica.es

Coolifting®

Lifting tratamendua



BETILE LUZAPENAK / LIFTING

GORPUTZ TRATAMENDU BERRIA

ZELULITISArekin ERAGINKORRA DEN TEKNOLOGIA BAKARRA



ZONALDEAK izterrak ipur-masailak besoak sabelaldeak



Azalaren ELASTIKOTASUNA hobetzen du

Ai Laket!! droga erabiltzaileen eta erabiltzaile ohien elkarte da. 2002an sortutakoa, euren helburua drogen kontsumoarekin lotutako arriskuak murriztea da. Horretarako gazteentzako proiektu desberdinak garatzen dituzte. Drogak kontsumitu ala ez norberaren erabakia dela uste dute, eta euren helburua ez da erabaki horretan eragitea, informazio zehatza, praktikoa eta sinesgarria ematea baizik. Bihar, zapatua, Txaltxa Zelaian egongo dira, 17:00etatik aurrera, 10-16 urte bitarteko gaztetxoentzat prestatu duten **GAZTETOPALAKET** proiektuarekin. Eta ekainaren 22an, San Juan jaietan atarian, berriro izango ditugu Eibarren, **BOTILTZAR** eta **TESTING** programekin. Ai Laket!!-eko Saioa Nuñez Guinearekin proiektu horien gainean egin dugu berba.



SAIOA NUÑEZ GUINEA (AI LAKET!! ELKARTEA):

“Drogekin bizitzen jakin behar dugu”

- Askotan etorri zarete Eibarrera San Juan jaietan inguruan.

Bai, urteak daramatzagu Eibarko jaietan parte hartzen. TESTING zerbitzua gauerdian hasten dugu eta 03:00ak arte egoten gara. Droga guztien inguruko informazioa eskaintzen dugu, arrisku murrizketarako materialak banatzen ditugu eta drogen analisia egiteko aukera egoten da. Horrek garrantzi handia dauka arriskuen murrizketaren aldetik. Substantzia asko, gehienbat ilegalak direnak, merkatu beltzetik etortzen dira eta ez daukate inolako kontrolirik. Beraz, beharrezkoa da jakitea zer diren eta zerekin nahastuta dauden, kontsumitzen badira arriskuak zeintzuk diren ezagutu ahal izateko. Aztertzen ez bada, ez dakizu zer daukazu esku artean eta zer ari zaren hartzen.

- Debekuaren aldetik baino gehiago informazioaren aldetik egiten duzue lan.

Gogoratu behar da orain arteko prebentzio politikek ez dutela helburua lortu. Kontsumoa ez da jaitsi. Drogen kontsumoa beti

egon da gure kulturean, eta egoten jarrituko du. Eta Ai Laket!!-etik errealitate horri aurre egin behar diogu. Nahiz eta kontsumitu, orokorrean, pertsona guztiok nahi dugu gure osasuna zaindu eta ahalik eta arrisku gutxien hartzea, eta gure lana horretara bideratzen da batez ere. Drogak kontsumitzea ala ez norberaren erabakia dela uste dugu, eta gure asmoa ez da erabaki horretan eragitea, informazio zehatza, praktikoa eta sinesgarria ematea baizik.

- Zer esan nahi dugu “kontsumo arduratsuaz” ari garenean?

Drogei buruz hitz egiten dugunean guk beti gozamina eta arriskuei buruz hitz egiten dugu. Zergatik kontsumitzen dugu? Gozamen batzuk aurkitzen ditugulako. Eta horietan arriskuak agertu daitezke, nola eta zenbat kontsumitzen dugunaren arabera, pertsonaren ezaugarrien arabera, testuinguruaren arabera... Baina hori bizitzako hainbat gauzekin gertatzen zaigu. Badakigu hainbat elikagai gure osasunarentzako kal-

tegarriak direla, baina kontsumitzen jarraitzen dugu. Drogekin bizitzen jakin behar dugulako elkartetik substantzien kontsumo arduratsua bultzatzen dugu.

- Zer egingo duzue bihar Txaltxa Zelaian jarriko duzuen “Gaztetopalaket” delakoan (10-16 urte)?

Gure proiektu berrienetakoa da, Testingaren antzerakoa, hau da, jaietara joaten gara (karpa eta materialekin), baina dinamika desberdina du. Elkarrekintza eragiten dugu: elkarrizketak, jolasak, eztabaidak... Gazteak eremu horretan elkar topatzea da helburua, eta hortik datorkio izena. Alkohola, kafeina eta tabakoa bezalako droga legalen inguruko sentsibilizazioa egiten dugu. Gazteak hurbiltzeko arte adierazpena, jokoa, ginkana... erabiltzen dugu, eta, esate baterako, alkoholaren efektua simulatzen duten betaurreko batzuk erabiltzen ditugu. Harritu egiten dira alkoholaren efektuak nolakoak diren ikustean. Kafeina ere droga bat dela argitzen diegu eta tabakoaren kontua lantzeko botila erretzailearen esperimentua egiten dugu. Lehen esan dugun moduan, inposaketak ez du balio, eta askotan behar duguna ikustea, probatzea, esperimentatzea da. Ekainaren 22an, iluntzean, BOTILTZARRA egingo dugu. Hau alkoholaren kontsumoarekin lortuta dago, eta asmoa da kalean alkohola edaten ari diren gazteekin kontsumo horren arriskuen gainean hausnarketa egitea (ondo elikatzearen eta ura edatearen garrantzia...). Baliabide horiek ez badauzkate, guk ematen dizkiegu (ura, palmeritak, fruitu lehorrak...)



365 egunetan eta Sanjuanetan ere bai!

Jaietan ere euskeraz jarduteko eta gozateko deia egin dute EIBARREN AKEBALTik eta ...eta kitto! Euskara Elkartetik. Sanjuanetan pegatinak eta txapak banatuko dituzte herriko hainbat gunetan, paparrean jartzeko.

Euskeraz Primeran! kanpainari beste bultzadaxo bat emango zaio ate joka ditugun herriko jaietan, festa giroan ere euskeraz mintzatu, entzun eta gozatzera animatu asmoz. AKEBAiko Kultura mahaiarekin elkarlanean, Txosnagunean zein tabernetan txapak eta pegatinak banatuko dira "herritarrek zein zerbitzariak euskera erabiltzera animatzeko eta konpromisoa azaltzeko".

Euskeraz Primeran! kanpainarekin bat egiten duten herriko tabernetan "Jaietan euskeraz primeran!" pegatinak egongo dira, tabernariak zein bezeroek ipintzeko. Eta Txosnagunean Euskaraldiko hiru rolak dituzten txapak (Ahobizi, Belarriprest eta Bihotzgoxo) banatuko ditu Akebaiko Kultura mahaiak.

Sare sozialen bitartez denon artean ekimena zabaldu

Euskaraz jardutera gonbidatu nahi dituzte eibartarrak: familian eta kuadriletan, plazan eta tabernetan, txosnetan, dantzian eta kiroletan, barraketan eta bu-



Tabernetan eta Txosnagunean kartelak jarriko dituzte, herritarrek pegatinak eta txapak paparrean jartzera animatzeko asmoz.



ruhandietan, danborradetan..." Euskaraz gozatu eta euskara bera gozagarri izan dadin guztiontzat gure herriko jaietan", azaldu dute.

Ekimena ahalik eta gehien zabaltzeko, sare sozialak erabiltzeko gonbitea egin dute. "Atera argazkia zure txapa edota pegatinarekin eta igo zure Facebook edo Instagramera eta etiketatu #etakitto #akebai edo #gaztekitto bertan".

Bide batez, ...eta kitto! Euskara Elkartetik zein Akebaiko Kultura mahaitik, euskal musika ipintzera animatu nahi dituzte tabernari zein txosneroak.

Jarri pegata eta Sanjuanetan ere euskeraz bizi!

JESUSA EGUREN ELKORO

2019ko ekainaren 6an hil zen



FAMILIAK Jesusa Egurenen heriotza dela-eta jaso dituen maitasun adierazpenak eta doluminak BIHOTZEEZ ESKERTZEN DIZKIZUE.



+ osasun gida

Dentistak



arat
Hertz Klinika

"Hertz osasuneko profesional taldea zure zerbitzura"

T. 943 20 18 51
info@clinicadentalarat.com
www.clinicadentalarat.com
Toribio Etxebarria 4 - 1. EIBAR

UniverSalud
Mutua, konpainia eta kolektibo handien itundutako zentroa



bista eder
clínica dental - hertz klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19
www.bistaeder.es

R.P.S. 123/17

Esku onetan egotearen ziurtasuna.
20.000tik gora paziente pozik.
Etorri eta egin irribarre berriz ere.



EIBAR HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4 behea ezk. info@eibarclinicadental.com
943 537 076 - 688 884 808 www.eibarclinicadental.com

Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17



GASTESI
Hertz-Klinika

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

Errebal, 9-1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02



hertz-klinika
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85



IRAZABAL
clínica dental

Iribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicalrazabal.com

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak

Bidebarrieta, 7-1. esk. 943-702896

10 urte zurekin Eibarren

25 prestazio doan zuretzako

VITALDENT
Konpromisoa

San Juan, 7
943 821 885 - 690 628 731
www.vitaldent.com

Dietetika/Nutrizioa



NATUR HOUSE

Ainara Iriando Ansola
GIZA ELIKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22
Mugikorra: 677 551 850

Errehabilitazioa



CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA

- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

Estetika klinika



abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA
ESTETIKOA

KIRURGIA
ESTETIKOA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

Fisioterapeutas



ANE MENDIA
970 Kolegiatu zkia.

- INIBATERAPIA
- KIROL LESIOAK
- DRENAJE LINFATIKOA
- POSTURA ZUZENKETEN TRATAMENDUAK

ARRAQUETA, 20
TEL: 943 53 06 42
ane_mendiá@hotmail.com

FISIOTERAPIA
ZENTRUA

Ginekologia



GINECOLOGÍA
EIBAR

Dra. Laura Martínez
Dr. Alejandro Recas

Tel: 659 56 13 65
San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com

Logopedak

AHOTS-LAN
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA



Isasi, 17 - 1. esk.
943 202691
ahotslan@gmail.com

Diagnostikoa eta tratamendua

Degluzio atipikoa	Arreta arazoak
Disfonia	Berba arazoak
Ikaste-arazoak	Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

----- (Ume eta helduendako) -----

Ana Artamendi

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

Berba
logopedia

AIDA CORTA ANTÓN

SAN AGUSTIN, 2-4 (B. 2004)
Mobila: 622-629-544
logopeda@berba.es

Ebaluazioa eta tratamendua:

- Hizkuntza
- Mintzaira
- Ahotsa
- Dislexiak
- Entzumena
- Degluzio atipikoa

Okulistak

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
www.oftalberdi.com

San Juan 11 - solairuartea
943 20 19 82

Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klínika

Miopia ebakuntzak
(femtosekundoko laserrarekin)

R.P.S. 234/13



Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia



T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746




PODOLOGOA

Maidier Lopez Etxeberria

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



PODOLOGO
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41



Psikologoak

AMETS
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa
www.centreamets.com

Coro Ortíz de Urbina - Master Praktika Klinikoa
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua) - Master P.N.L.
Tel. 675 70 68 07 - Trainer



PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com



Lorena Izaguirre Garcia
PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA

Errebal, 15 - 1. ezk.EIBAR
Zuberoa, 4ZARAUZ
Tel. 943 831 618



Psikologia klinika eta Psikoterapia zentroa

Oscar Mondragon Lili
GOIZEZ ETA ARRATZALDEZ
Urkizu, 13 - behea
Tel. 943206823 eta 686859023



Tf. 686 85 73 22
moreno_iciar@yahoo.es

Itziar Moreno
PSIKOLOGOA
KOLEG. ZKIA. 1947

GIZENTASUNA ANTSIETATEA AUTOESTIMA ARAZOAK

943 12 02 00
URKIZU, 13 - 1.

ORBEAKO DORRETTAN

centro médico eibar



Psikoterapia

RPS: 32/17

FUB
PSIQUIATRIA / PSICOTERAPIA / ALFA EIBAR

FERNANDO URIZAR BARANDIARAN

Medikuntza Psikiatrikoa

Ego Gain, 18 - 1 A (Eibar)
615 71 54 04

Bailen, 9 - 1. ezk. (Bilbo)
94 416 49 06

furizar1@yahoo.com



Kaletik sortu dira break dancea eta parkourra. Dantza-mota bat da lehena eta disziplina fisikoa bigarrena, baina kaleko mugimenduak adierazten dituzte biek. Sanjuanetako egitarauaren barruan gauza biak ikusteko eta ikasteko aukera egongo da. Izan ere, bihar 'Breaking Eibar' Eibarko V. Break Dance eta All Style txapelketa egingo delako 16:30ean Txaltxa Zelaian, eta hilaren 22an Lotzen ADD elkarteak parkour tailerra egingo duelako 19:30ean Eibarko Bizikleta plazan.

Eibarko kaleetako lurra ondo ezagutzen du Pedro Alfonso Vilasek, askotan egin duelako dantza herriko zoruaren gainean. 15 urterekin hasi zen break dance egiten, *"arrisku-saltua egiten ikasi nahi nuelako"*. Orain dela bost urte break dance txapelketa jarri zuen martxan Sanjuanetan eta hazten joan den ekitaldia da. *"Herriak break dancearen inguruko kultura ezagutzeko asmoz antolatutako egitasmoa da"*. Azken urteotan Vilasek ez du lehiaketan parte hartu, baina aurtien bai. *"Dantza egiteko gogo handia daukat eta etxean jokatzeko dut gainera"*.

Eibarko Break Dance eta All Style txapelketa, 'Breaking Eibar', erreferentziatzeko zita bihurtu da dantza estilo honen jarraitzaileentzat. *"Kalitate handia duten dantzariak etorri daitezten ahalegindu gara eta eurretako batzuk Eibarko zita noiz iritsiko zain zeuden"*. Horrela, Madril, Iruñea, Xixon, Leon, Bilbo, Donostia, Zaragoza eta beste hainbat tokitako dantzariak etorriko dira.

Breaking eta all style

Txapelketak bi zati ditu: *breaking* modalitatea eta *all style* bataila. Breakingean parte-hartzaileak bikoteka lehiatzen dira. *"Bikote bat beste baten aurka lehiatuko da eta puntu gehien lortzen duenak kanporaketa irabazten du"*. Horrela, bikoteek kanporaketak gaudituko dituzte finalera iritsi eta garaipena lortu arte. Ospea duen txapelketa izanik eta puntuaketetan zintzo jokatzeko, maila handiko epaileak egongo dira. *"Joserra valentziarra (Espainiako epailerik onena), Khalil frantziarra eta Skychief nederlandarra izango dira epaileak. Bikainak hirurak"*, Vilasek esan digunez. *All style* txapelketan, bestetik, parte-hartzaileak banaka lehiatuko dira. *'Seven to smoke' egitura du lehiak, "irabazi ahal izateko beste zazpi garaipen lortu behar direlako. Hau da, zazpi aldiz irabazten duen lehen dantzaria izango da garaile (edo 30 minututan garaipen gehien lortu dituenen). Modalitate ikusgarria da"*.



Dantzariak ez dituzte dantzak aurretik prestatzen, DJ batek erabakitzen duelako

zein musika dantzatzeko duten. Biharko ekitaldian Parisko DJ Jamal (*"iaz gurean egon zen eta asko gustatu zitzaigun"*) eta Bartzelonako DJ Skizo (*"oso DJ famatua break dancearen munduan"*) egongo dira, eta parte-hartzaileek momentuan inprobisatu behar izango dituzte mugimenduak. *"Dantzarien mugimenduak musikara egokitu behar dira, hor dago gakoa. Beraz, DJ-en lana garrantzitsua da"*. Txapelketan lehia egongo bada ere, ondo pasatzeko eta gozatzeko egitasmoa dela azpimarratzen du Vilasek. Gainera, jaia egongo da lehiaren ondoren DJ Jamalen eskutik.

Ibilbideko jauzilariak

Raymond Belle 1939an Vietnamen (sasoi hartan Frantziar Indotxina) jaiotzen zen soldadu



eta suhiltzaile bat izan zen. 'Metodo naturala' izeneko entrenamendu militarra jaso zuen, ariketa fisikoa naturarekin uztartzen duen disziplina, eta entrenamendutik harago eraman zuen jarduera hau bizitza filosofia bihurtuz. Praktika hau David semeari igorri zion eta honek, ikasitakoa kalera eraman eta eraldatu ondoren, parkourra sortu zuen 80. hamarkadan. Antzeko interesa zuten lagunekin batu eta Yamakasi izena hartu zuten, hurrengo hamarkadetako hainbat filmetan famatu egin zen taldea.

Ekainaren 22an, zapatua, parkourra ezagutu eta praktikatzeko aukera eskainiko dute Lotzen ADD elkarteok Eibarko Bizikleta plazan. *"Parkourra gure ingurunean mugitzea da: oztopoak gainditzea, jauziak egitea..."*, dio Dani Sampayo Lotzen ADD-ko kideak. *"Ingurunean aurkitzen dituzun gaitzeta egokitu behar zara parkourra egiteko, ez da ezer prestatu edo egokitu behar, hori da gakoa"*.

Parkourra, normalean, lagun artean egiten da inongo lehiarik gabe. *"Lagunak kale-ira irteten dira eta norberak erabakitzen du nolako lan fisikoa egingo duen"*, Sampayoren arabera. *"Norberaren gaitasunen arabera egiten dira mugimenduak. Lagun batek jauzi bat egiteak ez du esan nahi beste lagunak gauza bera egin behar duenik. Segurtasuna bermatzea eta zentzuz jokatzeko da garrantzitsua"*. Hori bai, edozein jarduera fisiko moduan, entrenamendua eta praktika berebizikoak dira gaitasunak hobetzeko. *"Maila igo edo jauziak segurtasun handiagoarekin egin nahi badituzu, entrenamendu fisikoa egin behar da indar eta abiadura gehiago lortzeko"*. Baina *parkourra* ez da indar eta abiadura kontua bakarrik, teknikak garrantzia handia duelako.

Praktika merkea da *parkourra*. Kanean egiten denez, ez da kuotarik ordaindu behar instalaziorik erabiltzeko; ez da material berezirik behar, gorputza ingurunera egokitu behar delako modu naturalean; eta ez da erropa espezifikorik behar, mugimenduak eroso egiteko aproposa den erropa janztekoa nahikoa



da. *"Zapatei ematen diegu garrantzia handiena, erosoak izaten saiatzen garelako, baina beste barik"*, Sampayoren berbetan.

Parkourra hedatzen

Parkour klaseak emateko, ekitaldiak antolatzeko eta, azken finean, praktika hau hedatzeko asmoz sortu zuten Lotzen ADD. *"Parkourra gizarte-inklusioko tresna dela uste dugu eta disziplina fisikoa izateaz gain ahalduzko, garapen pertsonalerako eta autogainditzeko balio duela"*.

Parkourrean urteetako esperientzia duten lagunak osatzen dute Lotzen ADD eta adin guztietako jendearekin egiten dute lan urte osoan zehar, pertsona bakoitzaren gaitasunen arabera helburu zehatzak finkatuz. Irungo Elatzeta ikastolan eskaintzen dituzte klaseak, baina hainbat ekitalditan hartzen dute parte (Olatu Talka, Street tARTar...) eta tailerrak eskaintzen dituzte han eta hemen. Eibarko ekitaldian, adibidez, Eibarko Bizikleta plazan dauden oztopoak zeintzuk diren aztertu eta oztopoak gainditzeko moduak bilatuko dituzte. *"Dena dela, tailerrera nor datorren ikusi beharko dugu, euren gaitasunetara egokitu behar garelako"*.

Sampayoren arabera gero eta jende gehiagok egiten du *parkourra* Euskal He-

Break dance tailerra 16an

Herbehereetatik etorriko den Skychiefek eta Adnane ("oso dantzari ona denak") break dance tailerra eskainiko dute hilaren 16an, domeka, 11:00etatik 13:00etara Kiroldegian. Izena emateko breaking.eibar@gmail.com helbidera idatzi daiteke eta informazio gehiago lortzeko [@breakingeibar](https://www.instagram.com/breakingeibar) Instagram orrira jo.

rrian. *"Umeek ezagutzen dute eta YouTube bitartez asko zabaldu da, baina elkarte gutxi gaude horren inguruan. Beraz, gutxi gara parkourra serio hartzen dugunak, nahiz eta jende askok praktikatu"*. Eibarren egingo den tailerrean parte hartu nahi izanez gero, Eibarko Bizikleta plazara joan eta bertan izena ematea besterik ez da behar.



VIDA BURGOS FERNANDEZ

(2019ko ekainaren 11n hil zen, 74 urterekin)

**Julian zure senarraren
Mendi Taldekoak**





Eibarko gaurkotasuna euskaraz



hurbileko informazioa



aldizkariaren hemeroteka



agenda



argazkiak eta bideoak

ezagutzen dituzu
gure sare sozialak?



etakitto.eus



Raquel Garcia Leon ez dabil zinearen munduan azken aldian, baina ikus-entzunezkoetako ikasketak egin zituen Donostiako Larrotxene kultur etxean eta 'Hilabeteen behin?' film laburra grabatu zuen Gehituren ekimenez egindako gidoigintza tailer baten ondorioz. Han eta hemen egon da ikusgai, baita Zinegoak-en ere, eta tailerrak egin dituzte hainbat herritan. Gaur, adibidez, errealitate lesbikoen film laburren solasaldia egingo dute 18:00etan Portalean.

RAQUEL GARCIA (zuzendaria):

"Gai lesbikoak modu positiboan landu nahi genituen, drama barik"

- Zertaz jardungo duzue gaurko solasaldian?

'Ondas mareadas' eta 'Hilabeteen behin?' laburmetriak ikusiko ditugu eta horren inguruan egingo dugu berba.

- Nola sortu zen 'Hilabeteen behin?' filma?

Emakumeentzako ekintzak egiteko proposamena egin genion Gehituri eta hainbat tailer antolatu genituen: gidoiak, bideoak, dokumentalak... Gidoi bat egiteko ikastaroa jarri genuen martxan eta hor ibili nintzen ni. Bederatzi ikaslek eman zuten izena eta denon artean gai lesbiko bat lantzen duen gidoi bat egitea zen helburua, beti ere modu positiboan, gai honen inguruan drama gehiegi dagoelako hortik zehar. Beraz, irribarre bat edo zapore ona uzten duen lan bat egitea zen gure asmoa. Ikastaroak hiru hilabete inguruko iraupena izan zuen, oso zaila delako bederatzi pertsonen artean gidoi bat sortzea. Normalean gidoilari bakarrak edo bik idazten dute testua, ez da erraza bederatzi pertsona ados jartzea. Gainera, ikasleek ez zekizkiten irudiak idazten. Dena dela, aurrera egin eta gidoia amaitu genuen, eta pozik geratu ginen emaitzarekin. "Zergatik ez dugu filmatzen?", pentsatu genuen, eta Gehituk dirulaguntza lortu zuen grabatu ahal izateko. Taldekide bakoitzak zerbait eman zuen: batek bere ka-



mera, besteak mikrofonoak, beste batek aktorea den laguna ekarri zuen...

- Nolako izan zen grabaketa?

Asteburu batean entseguak egin eta lokalizazioak bilatu genituen, eta hurrengo asteburuan filmatu egin genuen.

- Laburmetria zertan datza?

Bere bizitzarekin apurto nahi duen pertsona baten inguruko laburmetria da. Airean uzten dugu bere aurreko bikotea gizonetako edo emakumezkoa izan den, baina bikote moduan emakume bat nahi duela ikusten da. Oso animatuta dago, ligatu egiten du eta optimista da, baina desamodiozko egoera pare bat bizitzen ditu eta, azkenean, gutxien espero zuen tokian aurkitzen du maitasuna, adiskidetasuna edo berarekin gustora sentitzen den pertsona. Amaiera ez da oso itxia eta zaila da laburmetri batean istorio bat kontatzea, beraz, ikusleek euren interpretazioa egin beharko dute.

- Gai hau modu positiboan landu nahi zenutela aipatu duzu. Garrantzitsua da hori?

Bai, azken batean hori zen laburmetriaren helburua. Ez dago errealitate lesbikoak

lantzen dituen ikus-entzunezko lan askorik, baina ez dakit zergatik. Maila profesionalean ez dago emakumezko zuzendari edo gidoilari asko, eta hori izan daiteke arrazoi bat. Gehitukoei esan nien laburmetria edozein jaialditan eskaintzea gustatuko litzaidakeela, beste film labur bat gehiago izango balitz bezala, ez eskaintzea bakarrik gai honen inguruko jaialdietan. Adibidez, laburmetria euskeraz egin genuen euskerazko edo hemen egindako film laburren jaialdietan parte hartzeko, gaia kontuan hartu gabe. Horrez gain, aktoreen ama hizkuntza euskera da eta horrela hobeto moldatzen zirelako ere erabaki genuen euskeraz grabatzea.

- Gaurko solasalditik antzeko proiektu bat atera daiteke?

Ba ez zait axola berriz esperientzia errepikatzea. Hainbeste urteren ondoren ikus-entzunezkoen mundura itzultzean konturatu naiz asko gustatzen zaidala horrelako lanak egitea. Denbora asko eskatzen du, baina oso atsegingarria da. Ikastaroan parte hartu zutenek, aktoreek eta estrekin oso ondo pasatu zuten, oso dibertigarria izan zen.



*Iñaki elorza*

Zientzia independentea eta zorrotza exijitu behar dugu gizarte bezala. Horrela ez bada, egoerak orain bezain nahaspilatsua izaten jarraituko du.

Zientzia eta elikadura

Bai, onartu beharko dut, elikadurak eta zientziak ez dute elkar ondo ulertzen. Edo hori dirudi askotan. Alde batetik, elikaduraren inguruko mitoak dauzkagu, bai, eta horiek nahasmen handia sortzen diote jendeari. Baina, askotan, zientziak ere ez ditu gauzak gehiegi argitzen. Orain dela gutxi arte gosaria zen eguneko otordurik garrantzitsuena; orain, aldiz, ez; koipeak txarrak, orain onak; azukrea ona, orain pozoia... Kaosa dirudi, eta ez oso serioa, egia esateko. Hain azkar eta hainbestetan aldatu dira azkenaldian elikaduraren oinarriko paradigma zirenak, jendeak jada ez dituela aldaketa horiek kontuan hartzen, eta ez daki ondo zer pentsatu.

Horren arrazoiak aurkitzea ez da gauza erraza, baina aukeren artean bi bururatzen zaizkit. Alde batetik, giza gorputzaren konplexutasuna. Gure gorputza hain da sistema korapilatsua eta hainbeste aldagaik eragiten diote, non oso zaila den elikagai edo jaki

bakar batek gure osasunean duen eragina frogatzea, eta arrunta izaten da ikerketa desberdinen artean desadostasunak egotea. Beste arrazoi bat, nola ez, interes ekonomikoena da. Zientzialariek elikadura osasuntsuari buruz esaten dutenak gure ohituretan eragina du, edo eduki beharko luke... Elikagaien industriak oso ondo daki hori eta ikerketa asko babesten ditu berari interesatzen zaizkion ondorioak lortzeko asmoz. Nahiz eta horretarako ikerketak guttiz manipulatu behar izan edo interesatzen zaizkien emaitzak bakarrik eman jakitera.

Nola ez da ba gizartea galduta egongo hainbeste informazio manipulatu eta interesaturen artean? Dena dela, ez daukagu zientzia konfidantza izatea baino beste aukerarik. Hori bai, zientzia independentea eta zorrotza exijitu behar dugu gizarte bezala. Horrela ez bada, ez dira gauzak inoiz argituko, eta egoerak orain bezain nahaspilatsua izaten jarraituko du.

*Leire narbaiza*

Ez dau merezi dakagun ondaria salbatzia? Gure historia gorde ez eze, beste erabillera bat be emon funtzionalak izan daittezen?

Gora begiratu deigun!

Gasteizen turismuak haunditzen hasi zanian, bertan bizi dan lagun eibartar batek esan zetan turistak zeintzuk ziran jakitzen zebela eskuan liburua/papelak eruan, eta gora begira juaten ziralako. Gora beittu etxe eta eraikiñak ikusteko, arkitekturia kontenplatzeko.

Eibarren turista gitxi dabil. Herrixaren zatar famiak halako bisitaririk ez dau erakartzen, itxuria. Sasoi bateko ingles hafek, eta oin lmsersoko batzuk kenduta, despistauren bat baino ez dau *ate-rrizatzen* hamen. Horregaittik, gurian inñor gitxi dabil gora begira. Ze eibartarrok ez dogu gorutza begiratzen, ez bada jakitzeko ia ze egualdi egingo deskun.

Ba, herrixan eraikin polittak dagoz, eta estimatan ez dakaguzelakuan nago. Batez be, udalian oin arte agintian egondakuak, bestela ez da aitzen zelan laga zebe botatzen Alfako ofiziñen eraikiñā, esate baterako. Ondare industrial eta kulturalari egin-dako zaurixa izan zan ha, memorixia birrindu, eta herrixaren nor-

tasuna pikutara bialtzeko eria. Sensibilidade kultural bako agintzaillien obria.

Horregaittik, gora begiratu bihar dogu eibartarrok. Egizue prueb-ia. Estaziñō kalian hasi estaziñōtik bertatik lbarkurutzerañō. Beittu ondo barriztutako fatxaderi, bestieri be bai. Dotoriak dira, ez-ta? Ba, begirada hori berori erabili herrixan zihar sakabanatuta da-gozen danendako, eta batez be, eraikin industrialendako. Ima-jiñāizuez barriztuta, dakezen bentanal itzel hōfretatik sartzen dan argixa, horma senduetan barruan babestuta... Etxe eta lokal de-masak izango litzakez. Baiñā galtzeko arriskuan dagoz, batzuk be-heia joteko peligruan, beste batzuk bota eta barrixa egitteko. Ez dau merezi dakagun ondaria salbatzia? Gure historia gorde ez eze, beste erabillera bat be emon funtzionalak izan daittezen?

Herrixaren nortasuna mantendu, eta jaso doguna hurrengueri lagatzeko. Ezin izan dittugu taillarrak salbau, baiñā gorde deiguzen eraikiñā, sikiera!

NOLAKO OPORRAK, HALAKO ABENTURAK

EKAINA



Egilea: Malen Illarramendi
...ETA KITTO!



NOLAKO OPORRAK HALAKO ABENTURAK

Uda atarian gauden honetan, bidaia hitza hitzetik hortzera darabilgu. Ordu ilunetako gertaerak, lan- eta ikasketa-kontuak alde batera utzi eta argiari etekina ateratzeko asmoz gabiltza gehienok, gure bazterrak utzi eta urrutira alde egin nahian. Bidaiatu beti bidaiatu izan da, baina egiteko modua izugarri aldatu da azken urteotan. Orain gutxira arte ezezagun genituen Interrail eta Drumwit, esaterako, puri-purian daude gaur egun, batez ere, gazteon artean. Maddalen Yartzak eta Jokin Alberdik bidaiatzeko era horiek ezagutu dituztenez, lerro hauetan barrena euren esperientzia partekatuko dute gurekin, bidaiatzeko aukera berri horietaz ditugun zalantzak eta jakinmina ase ditzagun. Has gaitezen, beraz, mailetak betetzen gazte bi hauen eskarmentuaz baliatuta.



INTERRAIL

Interrail hitzak berak trenak dardarkigun burura, baina zein da berezitasuna? Honela azaltzen digu Jokinek zertan datzan: "Interrail 25 urte baino gutxiagoko gazteei zuzendutako tren-txartela da. Hilabeteke epean gehienez, Europa osoko herrialde asko bisitatzeko aukera ematen du". Gazteak dioskunez, esperientzia horrek denbora oso gutxian leku pila bat ezagutzeko au-

kera eman zien eurei. Horrez gain, bizipen ugari izan zituzten, baita jende berri asko ezagutu ere. Gainera, 24 urte zituztenez, alegia, mugarako urtebete baino falta ez zitzaizenez, gehiegi pentsatu gabe, probatzea erabaki zuten, aukerak ihes egin ez ziezaien.

Hasieratik izan zuten garbi Jokinek eta bere lagunek horrelako bidaia bat egiteko talde txikian joan beharra zegoela, bestela nahasmendu handia

izan zitekeelako. Hortaz, motxilak hartu eta lau lagunek ekin zioten bidaiari: Hendaia-tik irten eta Nizara iritsi ziren, handik Monakora abiatzeko. Behin horiek ezagututa, Italia aldera jo zuten, non Florentzia eta Bari ikusteko aukera izan zuten. Ferryko tiketak hartu, eta Kroaziako kosta ezagutzera abiatu ziren ondoren; bertan autoa alokatu eta hainbat toki bisitatu zituzten, hala nola, Dubrovnic, Split eta Zagreb hiriburua. Handik Eslovenia aldera irten ziren, hiriburua den Ljubljana, hain zuzen, eta amaitzeko Venezian eta Munchen egin zuten geldialdia.

Abantailez eta desabantailez galdetuz gero, Jokinek argi erantzun du: "Abantaila den gauza bera desabantaila ere bada; izan ere, denbora oso gutxian toki ezberdin asko ezagutzeko aukera daukazu, baina, era berean, toki bakoi-tzean denbora gehiago egoteko gogoz geratzen zara, leku batera egokitzen zarenerako, alde egin behar duzulako".



Poltsikoari nola eragiten dion horrelako bidaia batek jakin nahiko du batek baino gehiagok, dudarik gabe, oso kontuan hartzeko irizpidea baita. Jokinen hitzek argi uzten dute zalantza: "Kontuan hartuta 3 aste oso pasa genituela Europa osoko toki ezberdinak ezagutzen, oso ekonomikoa da. Gainera, zein baldintzatan bidaiatzen den ere aintzat izan behar da. Guk, adibidez, gazteentzako ostatueta egiten genuen lo, eta sukaldatu ere bertan egiten genuen, nahiz eta noizean behin kanpora joaten ginen afaltzera". Guztira zenbat gas-

tatu zuten zehaztea zail egin bazaio ere, 1.300 € inguru gastatu zituztela kalkulatu du. Mota horretako bidaia egin nahi duenarentzako aholku gisa zera dio Jokinek: "hartu ezazue motxila, eta murgildu abenturan, bi bider pentsatu gabe! Egin berba lagunekin eta hasi zaitezte zuen bidaia planifikatzen, ez zarete damutuko eta".

DRUMWIT

Oso bestelako bidaiatzeko modua da, berriagoa, Drumwit izenekoa. Opari bat egiteko asmoz Internet arakatzen ari zela izan zuen Maialenek horren berri. Profila topatu zuen, kuxkuxean hasi eta itxura ona hartu zion. "Drumwit webguneak arreta eman zidan, eta bere funtzionamendua ezagutu nuenean, izugarri originala iruditu zitzaidan". Izan ere, ustekabeko bidaiak antolatzen ditu era errazean: tarifa finko bat ordaindu, eta haien esku gertatzen dira bidaiaren nondik norakoak: hotela, hegazkina, lekualdatzeak... eta baita helmuga ere!! Harrigarrira badirudi ere, bidaia baino 48 ordu lehenagora arte ez dakizu nora zoazen!

Abantailez galdetuta, Maddalenek zera dio: "Abantailarik handiena erosotasuna da, zu ez baitzara ezertaz arduratu behar, bidaia beste norbaitek planifikatzen dizu-eta. Gainera, momentu oro zaude kuriositate edo jakin-min horrekin, ez bai-

takizu nora zoazen. Nire iritziz, horrek bidaiari ukitu berezia ematen dio". Desabantailak ere badituela onartu du; izan ere, jartzen den filtro bakoitzeko, amaierako prezioa igo egiten da. "Esaterako, dagoneko ezagutu duzun toki bat zerrendatik kenduz gero, edota hegazkinaren aireratze-ordua mugatu nahi izanez gero, hasierako aurrekontua asko aldatzen da. Azkenean, bidaia merkeenak lortu daitezke dena haien esku utzita, alegia, berdin bazaizu nora joan, inongo mugarik gabe; baina, zehazten hasiz gero, garesti ateratzen da".

Nolanahi ere, alde onarekin gertatzen da Maddalen, eta irakurleak animatu nahi ditu bidaiatzeko modu hau probatzera, bere esanetan, "gazteek disfrutatzeko aukera ezin hobea baita Drumwit; ilusioz eta sorpresaz betetako bidaiak dira, eta ondo erabiliz gero, diru gutxiren truke bidaia politak egin daitezke". Argibide gehiago nahi izanez gero, <https://drumwit.com> web.orria kontsultatzeko aholkatzen digu, azalpen ugari eta argiak baitaude bertan.

Argi dago biak ala biak aprobetxatzeko moduko aukerak direla eta oporrak antolatzeko orduan laguntza handia eskaini ahal digutela. Abentura gustuko baduzue, eta opor desberdinak izan nahi baituzue, gogoan izan. Ez zaizue damutuko!

ERREPORTAJEA ONLINE

Protagonisten hitzak gertuagotik ezagutu nahi badituzu, edota irakurri beharrean nahiago baduzu bideoz ikusi... ez ezazue galdu YOUTUBE-n “gazteOn! eta kitto” kanalean dagoen bideoa.
Hona hemen lotura:

<https://youtu.be/l4E-8Q-njGE>

Erreportaje honetan bidaiatzeko bi aukeraz baino aritu ez bagara ere, jarraian dituzuen loturetan beste hainbat aurkituko dituzue, zuen gustu eta beharretara egokitu daitezkeenak:



Gazteei zuzendutako orrialdea da. Bidaia ekonomikoak planteatzen dituzte. Batez ere talde-bidaietan zentratzen dira, hala nola: ikas bidaiak, lagun-talde bidaiak...

<https://www.joveneslowcost.com/>



Mota ezberdineko bidaiak egiten dituen agentzia da. Bidaia sorpresak, bidaia bereziak... zuk aukeratzen duzu zer neurritan parte hartu nahi duzun zure bidaiaren plangintzan, noraino iritsi nahi duzun, eta beste guztia agentziaren esku geratzen da.

<https://www.flykube.com/es>



Talde bidaiak antolatzen dituen web orrialdea da. Dagoeneko plangintza burutua duten bidaiak eskaintzen dituzte, eta norberak aukeratu dezake gustukoena.

https://www.thefunplan.com/Viajes/Jovenes/18-*/



Hautatzen duzuen hautatzen duzuela, opor onak izan, eta gogoratu bueltan berriro izango gaituzuela zuekin. Mila esker aurten gazteOn atalean parte hartu duzuen guztioi, ez ahaztu zuek gabe hau ez litzatekeela posible izango!



gazteOn! eta kitto



...eta kitto!



gaztekitto





Olinpiada Txikia 2019-VI-8



Eibar FT-ko beteranoak txapeldun taldearen estreinaldian

Donosti Masters Cup 2019 foball beteranoenaren nazioarteko txapelketak seigarren edizioa bete zuen aurreko asteburuan Anoetako miniestadioan eta, berritasun moduan, emakumezkoen torneo ere ipini dute jokoan. Emakumezkoen taldeak 35 urtetik gorako jokalariekin osatu dituzte, talde bakoitzean 30 urtetik gorako beste bi sartzeko aukerarekin. Lehen edizio horretan Gipuzkoako lau taldek (Oartzun, Aztarnak, Intxaurdi eta Eibar) eta Madrigo Olimpiak

hartu zuten parte. Talde bakoitzak lau norgehiagoka jokatuz zituzten (denak denen aurka) eta puntu gehien batu zituzten Oartzun eta Eibar finalerako sailkatu ziren. Neurke-



ta parekatuan eibartarrak nagusitu ziren, Ainhoak lortutako golari esker. Jokalari oenaren saria Evelynek irabazi

zuen. Eibar FT-k, beraz, hitz handitan idatzi du bere izena emakumezkoen talde beteranoen estreinaldian.

Klub Deportiboko kadete mailako bi pelotari finalerdi eta finalean

Atzo zuen eskuz banakako finalerdiko partidua Mikel Azkargortak. Astelena katedralean kadeteen 1. mailako finala zegoen jokoan eta Lazkao Lapke taldeko Unai Goikoetxea zuen aurkari. Gaur, bestalde, Deporrek Mikel Caminak 2. mailako finala izango du Tolosako Beotibar frontoian, Goierri taldeko Izagirrerren aurka. Bestalde, Pilota Eskolan izena emateko epea zabaldu dute hurrengo denboraldirako. Klub Deportiboko eta Eibarko Udal Patronatuko bazkide izateaz gain, interesatuek Eskolako kuota ordaindu beharko dute urrian. Entrenamendu ordutegia aldatu egin dute: astelehenetan eta eguaztenetan entrenatuko dira 2008an eta aurretik jaiotakoak (17:00-18:00) eta federatuak (18:00-19:00); eta martitzenetan eta eguenetan 2011 eta 2012 urteetan jaiotakoak (17:00-18:00) eta 2009 eta 2010 urteetakoak (18:00-19:00). Kontakturako pilotaeskola@deporeibar.com helbidea erabili daiteke.



Azkargorta eta Camina.

Junior mailako San Juan Sari Nagusia jokatuko da etzi goizean

Goizeko 09:30ean Untzagatik abiatuta, San Juan Sari Nagusiaren 84. edizioa jokatuko da domekan. Junior mailako lasterketa horrek 104 kilometro eta erdi izango ditu eta 12:00ak bueltan amaituko da T. Etxebarria kalean. Parte-hartzaileek Arrasateraino joko dute hasteko, handik Maltzagaraino itzuli eta Debaraino jotzeko ondoren, tartean Elorrieta gainetik pasatzeko. Itziarretik bueltan, Azkarate gainean izango dute zailtasun handiena Eibarko helmuga harrapatu aurretik.



Urkik denboraldia agurtuko du gaur Ipur sagardotegian

Ikasturtea ixteko unea heldu zaio Urki FT-ri eta gaur egingo duten afarian agurtuko dute denboraldia, ikasturtean nabarmendu diren jokalariei sariak banatuta. Gure herriko klubaren taldeek egindakoa errepasatuz, Mikel Egañak eta Iker Azkoagak zuzendu duten Erregional mailako talde nagusia maila igotzeko urrats bakarrera geratu da, denboraldia bikaina eginda. Jubenil mailako taldeei dagokienez, Ohorezko 8. geratu da eta mailari eutsi dio, eta 1. mailan jokatzen duenak seigarren geratu zen. Kadeteetan, Xepe Gallastegik eta Angel Rodelgok zuzendu duten A taldeak, liga irabazteaz gain, maila igo du eta Gipuzkoako azpitxapeldun geratu da (denboraldi ezin bikainagoa, beraz, euren), B taldea liga laugarren pos-



tuan amaitzen zuen bitartean. Infantiiletan B taldeak ikasturte hobea egin du A taldeak baino: B taldeak liga irabazi zuen, ondoren txapeldunen fasea jokatuz eta Gipuzkoako azpitxapeldun geratzeko; A taldeak laugarren amaitu zuen bere liga. Eta infantil txikiak, hainbat fase gainditu ondoren, Ohorezko mailan jokatuko du datorren denboraldian. Azkenik, alebin mailako taldeak hobekuntza mailan hartu du parte, emaitza onekin.

Hodei Ezpeletak Urrezko Aizkora irabazi zuen 19 urtez azpikoetan

Ernesto Ezpeleta "Bihurriren" semeak, 11 minutu eta 13 segundoko denborarekin, aurrea hartu zion Urrezko Banakako Aizkolarari Txapelketako maila gazteenean Xuban Cañameres V.a nafarrari eta, dema estuaren ondoren, azkenean 40 segundoko aldea atera zion. Ondoezen bat tarteko, final horretan parte hartu behar zuen hirugarrena, Arria VI.a, ez zen etorri. Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan jokaturako beste kategorietan, Iker Vicentek irabazi zuen txapelketa nagusia, Larrea III.a nagusitu zen 23 ur-



Hodei Ezpeleta, erdian makurtuta, Azpeitian irabazitako txapelarekin.

tez azpikoetan, Eizmendi eta Zelai V.a izan ziren onenak harri ajasotzen eta Onzalo-Astiazaran bikoteak agindu zuen trontzan. Hodei Ezpeletak, bestalde, denboraldi bikaina dihardu egiten eta, martxoan bikoteka irabazitako gazteen mailako txapelketarekin batera, San Isidro torneoa ere bereganatu zuen Arraten. Ekainaren 25ean, Sanjuanetako egitarauaren barruan, jokaturako den Euskal Jaialdiaren 26. edizioan izango du hurrengo erronka; eta zaletuek bere progresioaren lekuko izatekoa.

Pello Berrizbeitia eibartarra eta Nerea Amilibia nagusitu ziren Galdaramiño igoeran

48 parte-hartzaile izan zituen Galdaramiño igoeraren XI. edizioak, euretako bost emakumeak. Maila horretan Aiara joan zen garaipena, Amilibiarekin, eta gizonetakoetan Eibarren geratu zen, Berrizbeitia izan baitzen lehengoa helmugara iristen. Azken honek 1:25:52ko denbora egin zuen lau mendiko (Galdaramiño, Azkona-bitza, Topinburu eta Ilordo) ibilbidea osatzeko eta 18 kilometro horietan bost minutu eta erdi atera zizkion bigarren sailkatuari, Fran Guruzeta eibartarrari, eta sei minutu Elorrioko Javier Irazabali. Nerea Amilibiak, bestalde, 1.45:06 denboran osatu zuen ibilbidea, Miren Barrueta muxikarrari ia 26 minutu kentzeko eta Seila Manzano bergararrari 39 aterata. Lasterketaz aparte, mendimartxa ere izan zen, Atzegiko martxalarien eskutik. Gipuzkoako Adimen Urritasuna duten pertsonen elkartekoek ibilbide egokitua egiten dute, "azkarrak" eta



Miren Barrueta bigarren sailkatua. Periko Iriondo



Berrizbeitia irabazlea. Periko Iriondo

"lasaiak" taldeetan banatuta. Amaieran, gainera, Ipuruia ondoan dagoen sagardotegian bazkari eder batekin eman zioten amaiera mendi-jarduerari.



Aurreko edizio bateko irabazleak sariekin.

San Juan tiro pneumatikoko txapelketa jokaturako da hilaren 22an

Dinbi Danba tiro klubak antolatuta, txapelketa horretako XXIX. edizioa jokaturako da aurten, betiko moduan Unibertsitate Laboraleko Hezkuntza Esparruko instalazioetan. Parte-hartzaileek ikusmira zabaleko karabina pneumatikoarekin jardungo dute eta lehiaketa hainbat mailatan garatuko da, "infantil, jubenil eta seniorretan, hain zuzen. Edozeinek, probatzea nahi duenak ere hartu dezake parte". Tiraldia 11:00etan hasiko da eta handik ordu bira, 13:00etan, amaituko.

XXXI. San Juan igeriketa saria jokatu da bihar

Paco Yoldi igerilekuetan jokatutako sari horretako hirugarren edizioan Eibar Igerixan absolutu mailako bi igerilari, junior mailako hiru eta infantil mailako beste seirekin aurkeztu zen. Maite Barruetañak zilarra irabazi zuen absolutu mailako 200 estiloetan; juniorretan, Jon Osak metal bera irabazi zuen 50 eta 100 metrotan; Roke Etxeberriak brontzea bereganatu zuen juniorretako 400 librean; eta, azkenik, Kai Zubiaurre infantilak brontzea lortu zuen 50 bularrean. **Erreterian jokatutako XI. Sara Carracelas Sarian**, bestalde, Javier Zuazok, Iñigo Ugarteburuk, Guillermo Mauleonek eta Imanol Nietok hartu zuten parte, bakoitzak bi proba eginenez. Laurak ibili ziren primeran. **Oñatin jokatutako Txantxikuren Sarian** Eibar Igerixaneko ordezkari zabalak izan zen eta eurretako bost dominekin etorri ziren: Josu Ta-



Sara Carracelas Sarian parte hartu zuten eibartarrak.

lan eta Malen Beobide (100 metro bulareran), Igor Ruiz eta Maddi Maguregi (100 tximeleta) eta Iker Calvo (100 librean).

Proba horietatik aparte, eta urteroko tradizioarekin jarraitzeko, klubeko igerilariak Gamarrako igerilekuetan pasatu zuten aurreko domeka, giro ezinhobean. Bihar ohikoa den beste jardunaldi batekin gozatuko dute, oraingoan Ipuruako igerilekuetan, San Juan Sariaren 31. edizioarekin. Iker Calvo Frantziako Pau hirira joango da Nouvelle Aquitaine txapelketan parte hartzera.



Jubenil mailako waterpolo nesken taldea Espainiako txapelketara joango da

Urbar-Urkotronik waterpolo nesken taldeak 11-5 irabazi zion azken asteburuan Bidasoari eta Espainiako txapelketan izango da. Infantil mailako taldeak, bestalde, 10-9 irabazi zion Nauticari eta 3-13 Irunen, emaitza horiekin azkenean hirugarren postuan amaitzeko saikapenean. Kadeteen taldeak 16-10 galdu zuen Leioan eta liga seigarren postuan amaituko dute seguruenik. Azkenik, eibartarren jubencil mailako mutilen taldeak 8-15 galdu zuen Waterpolo Navarrarekin ligako finalean eta domekan Iruñean jokatu beharko du itzulera partidua Iruñean.

150 bat partaide izan zituen Eibarko Itzuliak

Lekeitio, Murgia, Soraluze edo Gasteiztik etorritako parte-hartzaileak izan zituen aurreko zapatuan egindako Eibarko Itzuliak, hemendik bi urtera errepikatuzeko gogoia ematen duen jardunaldi bikainarekin. Antolatzaileek eskerrak eman dizkie ibilbidea markatzen lagundu dutenei eta anoa postuetako boluntarioei, bereziki Azurtzako "Gure Basetxea" txabolako lagunei, "lehenengo anoa posturako salda prestatzeagatik". Ez dute ahaztu Isasi okindegiak, La Pera frutadendan eta Mertxe Agirrek (gazta eta menbriloa) anoa postuetarako eskainitako laguntza. Deporren Finalista Egunean, bestalde, ez ziren falta izan urteroko haurren irteera eta domina-banaketa. Guztira 47 lagunek jaso zituzten finalisten dominak, denboraldian zehar hainbat irteeratan parte hartzeagatik.

90 bolari eta bolazale batu ziren Gipuzkoako hiru-txirlo txapelketa agurtzeko

Aurten jokatutako txapelketa horretako 50. edizioak bere azkenak eman zituen Elgoibarko Idotorbeko San Pedro jatetxean, Ander Arritxaren musikak girotu zuen ekitaldiz betetako jardunaldian. "Gipuzkoako bola eta toka federazioaren laguntzari esker, gainera, sari handiak izan ditugu" esan digute antolatzaileek, "bola joko modalitate horretan federatutako bakoitzarentzako bere oroigarriarekin batera". Hiru omenduei Xabier Loiola "Armaxiok" bertso bana bota zizkien eta, agur esateko, Maria Luisa Zuloagak irrintzi ederra eskaini zien bertan bildutakoei.



Eibar Coworking 



ERABILTZAILA-ESPERIENTZIA (UX)
Zer da eta zergatik da hain garrantzitsua zure negozioarako

Azaltze-hitzaldia, UX mentoria eta Networking merienda

Ekainaren 18an, 18:30ean – eibarcoworking.com
hola@eibarcoworking.com
 Whatsapp-a 688 734 292

Eibar
Coworking



Ttatt-eko sanda modalitateko borrokalariak, Ramon Quinarekin Madrilen.

Sanjuanetako boxeoko jaialdia 21. edizioa beteko du aurten eta gaur gauean, 22:30etik aurrera egingo den jaialdia bederatzi borroka eskainiko ditu: boxeoko bost, sandako beste hiru eta antolatzaileek azken orduan lotutako emakumezkoen artekoa. Ramon Quina kirolari handia izandakoak zuzentzen duen Ttatt Gimnasioak urtero antolatzen duen ekitaldiak baditu bere zaletuak eta, berak esan digun moduan, *“alde handia dago kirol honetan zuzenean ikusi edo telebistan”*. Horregatik animatzen du jendea gaur Astelenara joatera.

Bederatzi borroka izango dira gaur Astelenan

Amateur mailako boxeoko bost borrokalarekin hasiko da gaurko jaialdia, Euskadi eta Kataluniako konbinatuaren arteko lehia. Elite mailako lau borroka, hiru minutuko hiru round-ekin bakoitza, eta gazteen mailako beste batek (hor bi round bakarrik) osatuko dituzte tarte hori. Hasteko, 69 kilora artekoan, Amine Haissoul ermuarrak Bernat Poada izango du aurkari; jarraian, Mikel Mendigurenek (Ermukoa hau ere) Jordi Perezekin neurtuko ditu indarrak 75 kilotan. Gazte mailako borroka izango da hirugarrena eta hor Euskobox-Gasteiz Sport-eko Kevin Saavedra eta Sebastian Pino Argotek jardungo dute, nor baino nor, horiek ere 75 kilotan. Lau garren borrokaldian 60 kilotan errenditu beharko duen Gasteizko talde bereko Abdelatif Zouhairi Eduardo Torres izango du aurrean. Eta 81 kilotako azkenean Euskobox-Barrubox taldeko Gazi Khalilov-ek eta Juan Ortizek neurtuko dituzte indarrak.

Profesional mailako sanda modalitatean hiru borrokaldi izango dira, hirurak ere Eibarko Gym Ttatt eta Ermuko Knockout taldekoen artekoak jokatu beharrekoak. 65 kilotan Sergio Osua eibartarrak Iker Oruesagati “Orue”-ren aurka borrokatuko du. Jarraian, 70 kilotan, Adria Wenzeslao hemen ikasten duen kataluniarrak Rafael Benito ermuarra izango du aurkari. Eta, azkenik, Ttatt-eko Josu Las Heras eta Knockout-eko Aitor Andreu izango dira, nor baino nor.

22:30ean hasiko den jaialdirako sarrerak 15 eurotan daude aukietan eseriz gero, eta 12 eurotan gradetatik ikustea nahi izatekotan. *“Azken orduan lotu dugun emaku-*



Boxeoa gertutik jarraitzea bezalakorik ez dagoela dio Ramon Quina jaialdiko antolatzaileak.

mezkoen arteko borrokaldian Ainarak eta Sandrak neurtuko dituzte indarrak”, dio Ramon Quinak. Bera izan zen aitzindaria arte martzialetan ez Euskal Herrian bakarrik, baita estatu mailan ere. Boxeoan ere jardun zuen, amateur mailan Espainiako txapeldua izateraino, eta onartzen du *“orain susperraldi antzekoa”* dutela kontaktuzko kirol modalitateek. *“Batez ere, emakumezkoen artean; eta gehienez boxeoa inguruan”*. Boxeoa, kick-boxing-ak eta sandak gorakada izan dutela dio: *“Kasu askotan arlo fisikoa gehiago lantzeko, kontaktu gutxiagorekin”*. Berak asko zaintzen ditu Ttatt Gimnasioan dituen kirolariak: *“Oso gazte direnean arriskua dago pare bat urtetan erretzeko; horregatik eurak zaintzen ditut. Ho-*

be da kontaktu gutxirekin hasi eta gutxinko kontaktura gerturaten joatea”.

Madrilatik sei dominekin

Ttatt Gimnasioak lau ordezkari izan zituen aurreko asteburuan Madrilgo Nazioarteko Torneoan eta sei dominekin itzuli zen Eibarrera. *“Torneo osotua izan zen, esperientzia hartzeko balio duen horietakoa”,* esan zigun Quinak. Bederatzi herrialdek hartu zuten parte. Sergio Osuak eta Geaxi Moredak urrezkoa eskuratu zuten Qingda edo punturako borrokan. Eta Sanda edo gutzizko kontaktuan Osuak urrezkoa berretsi zuen, Andoni Morgaderek eta Olatz Mandiolak zilarrezkoa bereganatzen zuten eta Geaxi Moredak brontzezkoak jabetzen zen bitartean.



PERIKO IRIONDO. "Loreak mendian, Urkora begira".

Heavy metal gaua izango da biharkoa. Mago de Öz talde madrildarrak itxiko du gaua, baina Bergaratik etorriko da herria sutan jarriko duen taldea, Lord Witch. Gainera, kutsu eibartarrekin, Jorge Gomez Akarregi delako taldeko gitarra-jolea. 15 urteko ibilbidea egin dute bergararrek eta gogotsu daude bihar Untzagan dena emateko.



“Heavy metalaren zaleek amaieraraino jarraitzen dizute”

- Kontzertua noiz iritsiko zain?

Saratoga edo Novaera bezalako heavy metal talde handiekin jo izan dugu, baina oso berezia da Mago de Öz bezalako talde batekin eszenatokia partekatzea. Oso pozik gaude eta, era berean, nahiko urduri. Eszenatoki gainean dena emango dugu, beti bezala, banda handi batek itxiko duen gauari hasiera ona eman nahi diogulako. Oso erantzukizun handia da.

- Nolakoak izaten dira zuen kontzertuak?

Heavy metal taldea gara eta genero horrek eskaintzen duena transmititzen saiatzen gara: gitarra zorrotzak oinarri sendoeekin, teklatuaren laguntzarekin ahots melodikoa jantziz. Askok gozaten dugu eszenatoki gainean eta sentsazio horiek publikoari igortzen saiatzen gara, gurekin goza dezaten. Ez gara birtuosoak, baina guretzat kontzertuak erdi bisualak erdi musikalak izan behar dira ikuskizun ona sortzeko.

- Orain dela hiru urte kaleratu zenuten bigarren diskoa, 'El elixir del tiempo'. Lan berriren bat duzue esku artean?

Abesti berriekin lanean genbiltzan, baina aldaketak izan ditugu taldean eta hirugarren diskoaren garapena eten dugu. Jorge taldera itzuli da bost urte ondoren eta biharko kontzertuan Aitorren laguntza izango dugu teklatuan. Bestalde, Andoni taldeko abeslari berriak bihar gurekin es-

treinako kontzertua eskainiko duela da gauzarik esanguratsuenak.

- 15 urte daramatzazue jotzen. Nolako egoera bizi du heavy metalak Euskal Herrian gaur egun?

Oso egoera zaila da. Gero eta zailagoa da zuzenean jotzea eta gutxieneko baldintzak edukitzea. Sasoi bateko egoera aldatu egin da eta hori asko igartzen da musikaren munduan, baina jendeak heavy metala entzuten eta sentitzen jarraitzen du, odolean daramate eta oso fidelak dira. Beraz, amaieraraino jarraitzen dizute. Oso esker onekoak gara gure alboan dauden zaleekin, eurek egiten dutelako hau posible. Eurak barik ez ginateteke ezer izango.

- Zertan aldatu dira gauzak azken 15 urteetan?

Ez gara lehen bezain gazteak (barreak). Konpromiso gehiago ditugu eta denbora gutxiago, baina lehen bezain beste edo gehiago sentitzen dugu musika, eta beti aurkitzen dugu tarte bat Lord Witchek gure bizitzan adierazten duena askatzeko. Azken urteotan hainbat aldaketa egon dira taldean, baina kide berriek eta jarraitu dugunok lehen eguneko ilusio berarekin jarraitzen dugu.

“Lord Witchek berezko izaera du eta beti igarriko da gure lanetan”

- Hasierako estiloari eusten diozue?

Gure estilo musikalarekiko oso fidelak gara eta oso ondo dakigu zer gustatzen zaigun eta zer egin nahi dugun. Abestietan denbora pasatu dela igartzen da, helduagoak garelako. Lord Witchek izaera propioa du eta beti igarriko da gure lanetan, taldekideak aldatu edo zahartzen badira ere.

- Zein lan prozesu jarraitzen duzue abestiak sortzeko?

Abestiak denon artean egiten ditugu. Orokorrean gitarra riff batekin hasten gara, eta baxuaren eta bateriaren oinarriekin jantzen dugu ahotsaren melodia zehazteko. Gero, teklatuaren konponketak eta beste zertzelada batzuk lantzen ditugu. Letrak amaieran sortzen ditugu eta gure egunerokoan bizi ditugun kontuez gain, musika estilo honekin identifikatzen diren istorio epiko eta metaforikoak abesten ditugu.

- Eibarkoaz gain, beste kontzerturik duzue aurretik?

Hainbat aukera ditugu, baina Eibarkoa da konfirmatuta dugun kontzertu bakarra. Bost lagunek osatzen dugu taldea eta bakoitzak bere konpromisoak ditu, baina gure musika eskaintzen saiatzen gara aukera ematen diguten tokietan, publikoa Lord Witchek munduan bildu nahi dugulako. Zaila da dena koordinatzea, baina kontzertu gehiagoren berri eman ahal izango dugu laster.



JESUS Mª OLMEDO,
"KATA" (Amañako
danborradako zuzendaria)

"Jende falta badago, Amañako danborrada desagertzeko arriskuan egongo da"

Amañako danborradak lehen entseguak egin ditu, baina jende gehiago behar dutela dio Jesus Maria Olmedo 'Kata', Amañako danborradako zuzendariak. Normalean 60 umek eta 60 nagusik hartzen dute umeen eta nagusien danborradan, hurrenez hurren. 27 urteetan hainbat oztopo gainditu dituzte eta 'Kata' ziur da jendearen falta ere konponduko dutela, baina konponbidea auzokide guztien esku dagoela azpimarratzen du.

- Zer moduz Amañako danborradako lehen entseguak?

Nahiko jende gutxi etorri da. Hiru entsegu egin ditugu eta bost geratzen zaizkigu oraindik. Jende gehiago etortzea espero dugu. Amaña nahiko auzo partikularra da eta auzoan bizi diren ume kopurua kontuan hartuta nahiko gutxi hartzen dute parte danborradan, Amaña eskolakoek batez ere. Horregatik, auzoan bizi diren ume guztiak danborradan parte hartzera animatu nahi ditugu, berdin da non ikasten duten, eta baita familia edo laguntasunagatik Amañarekin erlazioa dutenak ere. Nagusien danborradara, adibidez, Amañakoak izan barik auzoko batzuen lagunak diren neska pare bat etortzen dira. Agian gauzak gaizki egin ditugu, baina inork ez digu ezer esan. Edozein aholku edo proposamen jasotzeko prest gaude. Bestela, jende falta badago, Amañako danborrada desagertzeko arriskuan egongo da. Auzokide berriei ere parte hartzeko gonbitea egiten diegu, Babes Ofizialeko Etxeetakoei adibidez, auzoan integratzeko modu polita dela uste dugulako.

- Garrantzitsua da entseguetara joatea?

Askotan leporatu digute zortzi entsegu jartzea, gehiegi direlakoan, baina parte-hartzaile askok konpromisoak dituztela kontuan hartzen dugu eta zortzi entsegu programatzen ditugu gutxienez laura etorri ahal izateko. Entsegu gutxiago egitea ez da komenigarria, are gutxiago pieza berri bat jo nahi badugu.

- Aurten pieza berririk jotzeko asmoa duzue?

laz Jose Antonio Alberdi 'Goma'-ren omenezko pieza bat estreinatu genuen, baina behin bakarrik entseatu genuen eta gehiago praktikatuz behar dugu aurten jotzeko.

- Nolakoak izaten dira entseguak?

Umeen entsegua 19:00etan izaten da eta nagusiena 20:00etan. Gehienek badakite zer egin behar duten, urteak daramatzatelako danborradan. Ordubeteko iraupena izaten dute eta danborradako pieza guztiak jotzen ditugu, kaskarren jotzen ditugunak errepikatuz.

- Jende berriari kostatu egiten zaio erritmoa hartzea?

Ez, tanborra jotzea ez da hain zaila. Pentsa, ni naiz zuzendaria... (barreak).

- Nola bizitzen duzue danborrada eguna?

Danborrada Amañako jaiak barrutik bizitzeko aukera da. 27 urtetan hainbat oztopori egin behar izan diogu aurre danborrada egin ahal izateko. Adibidez, hasieran Sanjuanetako danborradako batzuek ez ziguten materiala hartzen uzten, material hori herrikoa bada ere. Bestetik, Miguel Angel Blanco hil zutenean danborradaren eguna aldatu behar izan genuen eta ez zen erraza izan berriz antolatzea. Hainbat aldiz euriari aurre egin behar izan diogu eta, adibidez, autotxokoetan jo duen lehen umeen danborrada egin genuen. Amañako danborradan jotzea berezia da. Urte asko badaramatzat ere, jo aurretik begi bat dardarka jartzen zait, urduri.

Kezkaren eskutik gaur ospatuko da Eibarko Dantzari Eguna

Gaur arratsaldean, 19:30ean ospatuko da Eibarko Dantzari Eguna Untzagan (euria egiten badu, Legarreko frontoian). Ohi bezala, Kezka dantza eskolan eta Kezka dantza taldean urtean zehar ikasitako dantzak jendearen aurrean erakutsiko dituzte. Kezkatik azaldu dutenez, "dantza taldeko nagusiek Durangaldeko dantzari-dantza prestatzen jardun dute aurten eta beraz, agintariena, zortzinangoa, ezpata-joko txikia eta ezpata joko nagusia, banangoa eta txotxongiloa eskainiko dituzte. Eta dantza eskolako taldeek hango eta hemengo dantzen erakustaldi anitza eskainiko dute: Lesakako eta Xemeingo ezpata-dantzak, Baztango sagar-dantza, zor-

tziko eta katadera dantza, Inude eta Artzaiak, Corteseko makila- eta zinta-dan-



tzak, Gipuzkoako dantzak, Arrateko dantzak, Lapurdiko kaskaroten dantzak... Betik moduan, musikaz Kezka dantza taldeko txistulariak eta Jainaga eta Narbaiza trikitilariak arduratuko dira".

Datorren ikasturterako matrikulazioa

Bestalde, Kezka Dantza Taldean euskal dantzak ikasteko 2019-2020 ikasturteko matrikulazioa astelehenean (ekainaren 17an) zabalduko dute. Ikasle berriek (6 urtetik gorakoek) Portaleko 3. solairuan eman ahal izango dute izena aipatutako egunean, 19.00etatik 20.00etara. Informazio gehiago nahi izanez gero, kezka@dantzan.com helbidera idatzi daiteke.



Familia osoarentzat kale-ikuskizuna egongo da zapatuan

Udalak Sanjuanetarako giroten joateko antolatu dituenen artean, zapatuan "The Wolves" izenburuko kale-ikuskizuna eskainiko dute The Fam Cia. Teatro konpainiakok. Familia osoarentzat pentsatutako ikuskizunak kale-antzerkia eta zuzeneko musika uztartzen ditu. Izan ere, kalean batetik bestera ibiliko diren lau aktoreekin batera bateriajole batek jardungo du. Anbulatorio parean hasiko dute saioa 20:00etan eta, hortik abiatuta, Torbio Etxebarria kalean eta Untzagan ibiliko dira.



Banatu dituzte maiatzeko argazki rallyko sariak Klub Deportiboan

Martitzenean banatu zituzten Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldekoen eskutik maiatzaren 12an egin zen rallyko sariak. Edizio honetako irabazleak, digitala koloretan atalean, Jesus M^o Ribera Otegi (Bilbo), Imanol Salegi Urbieta (Zestoa) eta Omar Igual Marcos (Donostia) izan dira, sari soziala Fernando Retolazak jaso zuen eta gazte mailako saria Maialen Barrutia Zabalak. Zuri-beltzeko argazkiekin saria eskuratu dutenak, berriz, Bakarne Elejalde Garitagoitia, Fernando Retolaza Loidi eta Jose Luis Irigoien Martinez dira. Irabazleek Klub Deportiboan jaso zuten saria.



Coliseoko zine emanaldiak

Asteburu honetan agurtuko dute denboraldia Coliseo antzokiko zine emanaldiek. Asteleheneko proiektzioak eta gero oporrak hartuko dituzte eta ikasturte berriarekin batera, irailaren erdialdera itzuliko dira.



"Paumen erregea" ipuin musikatua

Bihar, 12:30ean, "Paumen erregea" ipuin musikatua eskainiko dute Isabel Laspiurren piano ikasleek Coliseo antzokian, ikasturte amaierarako prestatu duten kontzertuan. Sarrerak 3 euro balio du.

Eibarko Kantuzaleak

Datorren asteko barixakuan Egogain Gerontologikoan emanaldia eskainiko dute Eibarko Kantuzaleak abesbatzako kideek, 17:00etan hasita.

Untzagako jubilatuen abesbatza

Ekainaren 22an (zapatuan) ikasturte amaierako ikuskizuna eskainiko dute Untzaga jubilatuen etxeko abesbatzak, gitarra taldeak, Kaleetan Kantuz dantza taldeak eta, amaitzeko, abesbatzak gitarra taldekoekin batera, Coliseo antzokian, 12:00etatik aurrera, Untzagako jubilatuen etxeak antolatuta. Sarrerak 2 eurotan ipini dituzte salgai.



• tartak
• enkarguak
etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73



Gosariak, plater konbinatuak, eguneko menua, asteburuko menua (enkarguz) eta Sanjuanetarako

Menu berezia: TXERRIKUME ERREA

Estaziño, 16 843 98 33 85



UEUren Udako Ikastaroak elkarlanetik ekinez

Udarako 15 ikastaro eta 3 jardunaldi antolatu ditu UEUK Eibarren. **Iaz bezala**, aurtengo goiburua ELKAR EKIN da. Kepa Sarasola UEUren zuzendariak azaldukoaren arabera, "udakoak elkarlanean antolatu eta jakintza berriak sortzen direla azpimarratzeko asmoz. Gure izaeran dago elkargune izatea, eta udako ikastaroez ere hori islatzen dute. Ikastaro hauek auzolanean antolatzen ditugu pertsona eta erakundeekin, eta elkarlan horretatik ekiten diegu proiektu berriei, jakintza berriei. Eibarko aurtengo edizio hau, besteak beste ALDEE, Iratzar Fundazioa eta EMAUS Fundazioarekin antolatu dugu, bai eta gure bazkide eta kolaboratzaileekin ere. Denei eskerrak eman nahi dizkiet, eta aurrerantzean lanean jarrituko dugula espero dut".

Irati Iciar UEUko Udako Ikastaroen arduradunaren berbetan, "35 jarduera antolatu ditugu aurtengo guztira. 100 ikastaro proposamen jaso ditugu eta aukeraketa egitea zaila izan da, jasotako ideiak oso onak izan direlako. Horietatik 15 ikastaro eta 3 jardunaldi Eibarren, Markeskuan eskainiko ditugu".

Urtero bezala, landuko diren gaiak berriak izango dira eta dagoeneko matrikula zabalik dago www.ueu.eus helbidean. Gogora ekarri dutenez, ikasle, langabetu eta jubilatuentzat matrikuletan beherapenak eskaintzen ditu UEUK, Berriagunek UEUko bazkideek duten deskontu bera izango dute eta Eibarko Udalak dirulaguntzak ematen ditu ikastaroetara doazen herritarrentzat.

Dena prest Sanjuanak txosnetan ospatzeko

Sanjuanetan Txaltxa Zelaian zabalduko duten txosnagunea **girotzeko egitaraua prest dago**. Eibarko Ikasle Taldeak, Nalua Eibarko gazte feministen taldeak, Presoen aldeko mugimenduak, EH Bilduk, Ernaik eta Jaixak Herrixak Herrixandakok antolatu dituzten jarduerak ekainaren 21ean (barixakuan) hasi eta 25ean (martitzenean) amaituko dira eta egitaraua osatzen dutenen artean aipamen berezia merezi dute egunero egongo diren kontzertuek: ekainaren 21ean The Vartools, The Rodeos eta Bidean Erromerixa taldeek joko dute; ekainaren 22an Mursego, The Red Army, Gorpuzkings eta Fruterixia taldeek; ekainaren 23an, Radio Revolucion eta Machete en Boca taldeen txanda izango da; eta



ekainaren 24an La Mare y el Combo Guanabi, Pelax eta Kumbia Queens taldeek jardungo dute zuzenean. Hortik kanpora herri bazkariak, elektrotzaranga, DJak, kalejirak, jokoak eta beste hainbat antolatu dituzte.



Debabarreneko Orfeoia "Bubbles-Ponpak" eskainiko du Karmelitetan

Debabarreneko Orfeoia kontzertua **emango du domekan, 19:30ean Karmengo Amaren elizan** (Karmelitetan). Emanaldian maiatzean Errioxan estreinatu zuten "Bubbles-Ponpak" programa eskainiko dute: "Missa Ioannes Paulus II-Kyrie" (Josu Elberdin), "Be still my soul" (Alan Troy Davis), "May it be (El Señor de los Anillos)" (Enya), "Jueves" (La Oreja de Van Gogh), "In-

dodana" (Michael Barrett & Ralf Schmitt), "Cantique de Jean Racine" (Gabriel Fauré), "Dirait on (Le Chanson des Roses)" (Rainer M. Rilke/M.J. Lauridsen), "Siyahamba" (Zulu herrikoia), "Look at the world" (John Rutter) eta "Omnia vincit amor" (Jerry Estes). Zuzendaria Jose Miguel Laskurain izango da eta solistak Ana Agirre, Lisbeth Fuentes, Beatriz Agirre eta Pili Villar.

Poesia eta musikarekin girotutako gaua Ibarkurutzeko iturrian

Zapatu iluntzean egin zuten zazpigarrenez **Poesia eta Musika Gaua Ibarkurutzeko iturrian** Maite Lorezok zuzentzen duen Itzamna Poesia Tailerrekoek. Eibarko tailerreko kideekin batera, beste herri batzuetatik etorritako hainbat lagun jardun zuten poesiak errezitatzen, 32 lagun guztira. Poesien gaia librea izan zen eta Alberto Luis Egiak pianoarekin lagundu zien. Horrez gain, poesiakin tartekatuta Sostoa abesbatzako kideek eta Juan Bautista Gisasola koruko haurrek ere abestu zuten.





Trinitateetako idi-proba ELGOIBARREN


Uztarri Motzeko Trinitateetako I. Saria idi-proba txapelketa antolatuta du Sigmako Probaleku elkarteak biharko eta astelehenerako. Uztarri motzeko probak idi bakarrarekin jokatzen dituzte eta sei lehiatuko dira sari horretan: Eibarko Altzubarren eta Mendigoiti, Billelako Lopategi, Errenteriako Patxi Irarreta, Azkoitiko Isidro Erretegia eta Aizarnazabalgo Altuna. Aipatutako saio biak 22:00etan hasiko dira eta idiek 1.100 kiloko harria mugitu beharko dute Sigmako probalekuan. Idien pisaketa goizean, 10:00etan, egingo dute probalekuan bertan. Sarietan, bestalde, 4.500 euro banatuko dira guztira; irabazleak 1.000 euro eta manta jasoko ditu sarritzat.



Aspanogiren aldeko jaiak bihar SORALUZEN

Gipuzkoako Haur Minbizidunen Guraso Elkartearen aldeko jaiak egingo dute bihar Soraluzen, Etxaburueta kalean antolatutako hainbat ekitaldiekin. Egitaraua goizeko 11:00etan hasiko da, otarraren zozketarekin. Handik ordubetera, eguerdiko 12:00etan, patata-tortilen lehiaketa jokatuko da. Behin arratsaldean sartuta, 19:00etan bokata erraldoiaren ordua izango da.

eguraldia (EUSKALMET.NET)



hildakoak

- Mohamed El Marrouti El Marrouti. 69 urte. 2019-V-31.
- Jesusa Eguren Elkoro. 86 urte. 2019-VI-6.
- Piedad Martinez-Blanco Megia. 85 urte. 2019-VI-7.
- Mari Milikua Balzola. 92 urte. 2019-VI-7.
- M^a Rosa Fernandez Arriola. 80 urte. 2019-VI-8.
- Josefa Airas Boo. 87 urte. 2019-VI-9.
- Manuel Quina Perez. 85 urte. 2019-VI-10.
- Amaia Egiguren Agirregomezkorta. 57 urte. 2019-VI-11.
- Benita Basauri Aizpurua. 85 urte. 2019-VI-11.
- Vida Burgos Fernandez. 74 urte. 2019-VI-11.
- Rosario Perez Martinez. 74 urte. 2019-VI-11.

jaiotakoak

- Maider Huamani Minaya. 2019-VI-5.
- Izar Zendoia Gonzalez. 2019-VI-8.
- Nora Matias Acosta. 2019-VI-8.

farmaziak

- Barixakua 14
EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
- Zapatua 15
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
- Domeka 16
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Astelehena 17
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
- Martitzena 18
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- Eguaztena 19
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Eguena 20
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Barixakua 21
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)

GAUEZ BETI - 2019AN-
 Zulueta (San Agustin, 5)

SUDOKUA

AURREKOAREN
 EMAITZA

7	6	1	2	3	4	9	5	8
3	5	9	7	8	6	4	2	1
2	4	8	5	1	9	7	6	3
9	1	5	8	6	1	2	4	7
4	3	7	1	2	5	6	8	9
8	2	6	9	4	7	1	3	5
6	8	4	3	7	1	5	9	2
5	7	2	6	9	8	3	1	4
1	9	3	4	5	2	8	7	6

	2	6		1	3			
5		7	6				9	
							2	8
6							7	
8	7						6	3
	4							9
7	1							
	9				2	1		7
			5	7		9	3	

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....900 17 11 71
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Eibar Ospitalea.....943 03 29 00
- Mendaro ospitala.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekoa.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....944 33 33 33
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63
- Grupo Egun Bat (Jokazale Anonimo eta Familiak) ...699 37 75 20

Barixakua 14

ALTERNATIBEN AZOKA

17:30. Azokaren irekiera.
17:45. Garagardo dastaketa EH Beer Koop-en eskutik.
18:30. "Hausnartuz eta jolastuz Bizitzak Biziarazi".
19:00. Alternatibena bira.
20:00. Solasaldia: Olatukoop eta Koop Fabrikako kideekin. Eibarko Bizikleta Plazan (euria egiten badu, Topalekuan).

SOLASALDIA

18:00. Errealitate lesbikoen film laburren solasaldia. Portalean (areto nagusia).

UNI-REN 50. URTEURRENA

19:00. Urteurrenaren liburu-aurkezpena. Udaletxeko Pleno Aretoan.

GARAGARDO FERIXA

19:00. XVII. Garagardo Ferixa, Eibar Rugby Taldeak antolatuta. Untzagan.

DANTZARI EGUNA

19:30. Antolatzailea: Klub Deportiboa-Kezka Dantza Taldea. Untzagan (euria egiten badu, Legarreko frontoian).

DANTZA

20:00. Eibarko dantza garaikidea. Ikasturteko amaieraren emanaldia. 3 euro. Coliseoan.

BOXEO GAUA

22:30. Boxeo Gaura. Antolatzailea: Gimnasio Ttatt. Astelena frontoian.

Zapatua 15

EMAKUMEA ETA RUGBYA

10:30/13:30. Zinta errugbi txapelketa (kontaktu barik) emakumeentzat. Doakoa, nahi dutenentzat. Unben.
14:30. Emakumeen bazkaria. Untzagako karpan.

JARDUNALDIA

10:30/19:30. XXXV. Extremadurako Herrialde-Elkarraldi Jardunaldia. Arraten.

TAILERRAK

11:00/20:00. Simulazio jokoaren tailerrak: modelismoa, eszenografia eta mahai-jokoak, Odisea elkartearen eskutik. Untzagan.

UNI-REN 50. URTEURRENA

11:30. Urteurrenaren liburu-aurkezpena (Uni-ko San Andres aretoan).
11:00 eta 12:00. Bisita gidatua (taldeak erdiko eraikineko hallean osatuz).
11:00/12:30. Sagardo eta txorizo egosi dastatzea, trikitixarekin (Uni-ko erdiko eraikinaren aurrean).
13:00/14:00. Urteurrenako oroitzapen ekitaldia (ekitaldi aretoan).
14:15. Talde argazkia (Uni-ko erdiko eraikinean).
14:30. Bazkaria (Uni-ko kiroldegian).
17:00/20:30. Musika eta dantzaldiak. Barra zerbitzua (Uni-ko gimnasioan).

BOLO PALMA

12:00/14:30. Eibarko Hiria Bolo Palma XXXIII. Txapelketa, Eibarko Kantabriako Etxearen eta Ermuko Peña Bolisticaren artean. Ipuruako bolatokian.

MUSIKA

12:30. "Paumen erregea" ipuin musikatua. Isabel Laspiurren ikasleen ikasturte amaierako kontzertua. 3 euro. Coliseoan.

IGERIKETA

16:00. XXXI. San Juan Igeriketa Saria. Antolatzailea: Eibar Igerixan. Ipurua kiroldegian.

BREAK DANCE

16:30. Eibarko V. Break Dance eta New Style Txapelketa. Txaltxa Zelaian.

PREBENTZIOA

17:00. Gaztetopalaket drogen inguruko prebentzioa. Txaltxa Zelaian.

GARAGARDO FERIXA

19:00. XVII. Garagardo Ferixa, Eibar Rugby Taldeak antolatuta. Untzagan.

KALE-ANTZERKIA

20:00. "The Wolves" kale-ikuskizuna (The Fam Cia. Teatroyen eskutik). Anbulatorioa-T. Etxebarria-Untzaga.

KONTZERTUA

22:00. Lord Witch eta Mago de Oz taldeak. Untzagan.

SEXU-BIZI

00:00. Informazioa eta babes gunea San Juan jaietan. Untzagan.

Domeka 16

TXIRRINDULARITZA

09:30. Sanjuanetako 84. Txirrindularitza Sari Nagusia.

ARKU TIROA

18:00. Antolatzailea: Urko Arkularien Kluba. Txaltxa Zelaiko kioskoan.

GARAGARDO FERIXA

19:00. XVII. Garagardo Ferixa, Eibar Rugby Taldeak antolatuta. Untzagan.

MUSIKA

19:30. Debarareneko Orfeoaren kontzertua: "Bubbles-Ponpak". Karmengo Amaren elizan.

Astlehena 17

IKASTEN

10:30. Antzerkia. Luzatze ariketak. Portalean.

ELKARRETARATZEA

12:00. Jubilatua eta pentsiodunena, pentsio duinak eskatzeko. Seguridade Sozialaren parean.

Martitzena 18

IKASTEN

16:00/19:00. Puntu-tailerra.
17:00/20:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

GIMNASIA ERRITMIKOA

19:00. Ipurua Gimnasia Erritmika taldearen erakusketa. Untzagan.

Eguaztena 19

DANBORRADA KO ENTSEGUA

19:00. Umeen entsegua.
20:00. Nagusien entsegua. Bittor Sarasketako 7an (Beistegi eraikinean).

EIBARKO KANTUZALEAK

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

Eguena 20

KALEETAN KANTUZ

17:00. Kaleetan Kantuz dantza taldearen entsegua (hastapena, beteranoen entsegua **18:00**etan hasiko da). Untzaga jubilatua etxean.
19:30. Kaleetan Kantuz abesbatzaren entsegua. San Andres lokaletan.

ODOL-EMATEA

18:00. Odola emateko saioa, odol-emaileentzat. Anbulatorioan.

MUSIKA

19:00. J.B. Gisasola Musika Eskolako ikasturte amaierako kontzertua. Untzagan.

AMAÑAKO DANBORRADA

19:00. Umeen entsegua.
20:00. Nagusien entsegua. Amañako herri ikastetxean.

Erakusketak

Ekainaren 18ra arte:

– **DIBUJO ETA ZERAMIKA UDAL ESKOLETAKO IKASTURTE AMAIERAKOA (Portalea)**

Uztailaren 19ra arte:

– **"EIBARKO INDUSTRIA-SAREAREN BERRERAIKUNTZA 1938-1942" (Eibarko Armagintza Museoa)**

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, AIORA!, bixar 4 urte potolo egingo dozuz-eta!. Musu haundi asko etxeken eta, bereziki, Malenen partez!



Zorionak, HELENE, gure prezioxa!, hilla-ren 12xan 4 urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat famelixako danon partez!




Zorionak, AITANA Larred, astelehenian 9 urte bete eta ospatu zenduaz-en-eta. Musu haundi bat famelixaguztiaren partez.



Zorionak, UXUE!, martitzenian urtetxua egin zenduaz-en-eta, printzesa! Patxo potolo bat famelixaguztiaren partez.



Zorionak, BEÑAT!!!, eguaztenian bi zifrako 10 urte potolo bete dozuz-eta. Patxo zaparradia famelixaguztiaren partez.



Ongi etorri, AIORA, hilla-ren 9xan gure artera etorri zifan-eta. Musu bat etxekuen eta, batez be, Izaro eta Landerren partez.



Ongi etorri, IZAR, eta zorionak Saio, Etor eta, batez be, etxeko printzesa Nahiri. Musu bat parkeko famelixaren partez.



Zorionak, JULE!!!!, astelehenian 6 urte beteko dozuzelako!!! Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, IXONE!, zapatuan 9 urte beteko dozuzelako. Askoi maitte zaittugu! Segi horrela.



Zorionak, LUKENI!, atzo 4 urte bete zenduaz-en-eta. Musu pillua famelixaguztiaren partez.



Zorionak, AINE!!!, hilla-ren 12xan etxeko txikixenak urtetxua bete zebalako!! Etxekuen eta, batez be, Gaelen partez.



Zorionak, MELANY, bixar 9 urte egingo dozuz-eta. Batez be, amatxoren partez, nire sorgintxua.



Zorionak, MAITE (hilla-ren 2xan bete zittuan urtiak) eta JULIA (17xan beteko dozuz). Patxo haundi bat famelixaren partez!



Zorionak, MARKEL, bixar 12 urte beteko dozuz-eta. Aitta, ama eta amamen partez.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)
15an: 19:45, 22:30
16an: 20:00
17an: 20:30

"Infiltrado en Miami"

Zuzendaria: Rachid Boucharebo

(2 ARETOAN)
15an: 17:00, 19:45, 22:30
16an: 17:00, 20:00
17an: 20:30

"El vendedor de tabaco"

Zuzendaria: Nikolaus Leytner

(ANTZOKIAN)
15an: 17:00⁽¹⁾, 19:45, 22:30
16an: 17:00⁽¹⁾, 20:00
17an: 20:30

"Men in Black International"

Zuzendaria: F. Gary Gray

(ANTZOKIAN)
15an: 17:00
9an: 17:00

"Mr. Link. Jatorri galdua"

Zuzendaria: Chris Sutler



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK**, beti ere **4 ASTERAKO**, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai J. Etxeberria kalean. 3 logela, 2 egongela, sukalde eta komunak. 85 m². Kalefakzioarekin. Tel. 615-781231.

1.2. Errentan

- Pisua alogagai Donostiako Antigua auzoan, abuztuaren 15etik irailaren 15era. Hondartzatik 5 minutura. 55 m². Berriztuta eta igoailuarekin. 2 logela, egongela-jangela-sukaldea, komuna eta Wifia. Hamabostaldia 1.600 eurotan. Tel. 669-027734. Angel.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Erreferentziak. Tel. 666-197831.
- Pisu zoragarria alogagai Donostian, ekainaren 1etik irailaren 30era. 2 logela, sukalde-egongela eta 2 komunak. 3 igoailu eta garajearekin. Tel. 689-232882. Judith.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Lokala alogagai T. Etxebarria kalean. 25 m². Bulego, profesional, kontsulta, akademia etabarrerako egokia. Tel. 616-175672.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Tel. 643-374471.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauez ospitalean ere. Tel. 632-893312 eta 679-929348.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere edo internan. Tel. 688-735551.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Bi urteko esperientzia. Tel. 631-627419.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 610-067042.
- Emakumezkoa eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 602-023926.
- Emakumezkoa eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 612-260162.
- Mutila eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Sukaldari ona. Tel. 612-521729.
- Emakumezkoa eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 649-025614.
- Bikote arduratsua eskaintzen da lan egiteko: nagusiak edo umeak zaindu, baserrieta lanak... Tel. 602-398328.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-012735.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 602-127979.
- Emakumezkoa eskaintzen da garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 608-862973.
- Emakumezkoa eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta kamarera jarduteko. Tel. 633-101852.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko ekainetik aurrera. Tel. 655-778451.

- Mutila eskaintzen da garbiketarako egiteko. Tel. 602-368727.

- Neska eskaintzen da porgorak garbitzeko. 09:00etatik 11:00etara eta 15:30etik aurrera. Tel. 685-185462.

- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta sukalde-laguntzaile moduan. Esperientzia eta gida-baimena. Tel. 655-132769 eta 652-587259.

- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta formakuntza. Tel. 667-060292.

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka, asteburuetan edo gauez. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 652-668877.

- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 643-374471.

- Emakumezkoa eskaintzen da arratsalde nagusiak zaintzeko. Tel. 626-197217.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Interna. Tel. 631-906590.

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-375088.

- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-601987.

- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Asteburuak barne. Tel. 689-003537.

- Neska euskalduna eskaintzen da estetika lanak egiteko. Ikasketak eta esperientziarekin. Tel. 655-778451.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Asteburuak barne. Tel. 631-369988.

- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauez ere. Tel. 697-764177.

- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Asteburuak barne. Baita gauez ospitalean ere. Tel. 632-098382.

- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Asteburuak barne. Tel. 631-199421.

- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Asteburuak barne. Tel. 662-491405.

- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Eguerdiz eta gauez. Ziurtagiriarekin. Tel. 632-229972. Jeamilet Mairena.

- Mutila eskaintzen da garbiketarako egiteko, laguntzaile moduan eta baserrian jarduteko. Tel. 643-961051.

- Mutila eskaintzen da arotz edo pintore jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 617-773202.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-405748.

- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Formakuntzarekin. Tel. 617-896989.

- Emakumezkoa eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Asteburuak barne. Baita abuztuan ere. Tel. 688-664127.

- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 650-152866.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 632-486996.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 722-228156.

- Emakume euskalduna eskaintzen da ekainean eta uztailean umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 626-144098.

4.2. Langile bila

- Pertsona behar da hotel bateko harreran eta logelen garbiketarako lan egiteko uztailean eta abuztuan. Curriculum-a bidali: jkasumba@gmail.com

- Emakumezko euskalduna behar da umeak zaintzeko. Jornada edo lanaldi erdia. Tel. 652-768569.

- Kamarera/o behar da Eibarren. Esperientziarekin. Tel. 627-664988.

- Euskeraz dakien neska behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 699-024156.

- Kamarera behar da. Esperientziarekin. Bidali curriculum-a: 1539cristina@gmail.com

- Neska euskalduna behar da Azpeitian arratsaldeko 17:00etatik 21:30ak arte nagusiak zaintzeko. Uztailetik aurrera. Tel. 653-723095.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Maila guztietako Matematika, Kimika eta Fisika klase partikularrak ematen ditut. Lau lagunekin taldeak gehienez. Urteetako esperientzia. Tel. 615-705945.

- Neska euskalduna eskaintzen da uztailean LH eta DBH ikasleei errefortzu klaseak emateko. Tel. 688-608922.

- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. Tel. 688-624326.

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

EIBAR
Hipermerkatua

Laguntzarekin



EROSKI

zurekin

SANJUAN zorientsuak!!!

HEGAZTIAK / AKUARIOFILIA / TXAKURRAK / KATUAK / KARRASKARIAK



BALEA
5€

Gutxieneko gastua 30€
Beharrezkoa da bale hau aurkeztea.



tumascota

"Maite dituzunak zaintzen ditugu"

Tel. 943 849 999

Astelehena - Larunbata: 10h - 21h.

www.tumascota.es

i30 N eta N-Line Gama Berriak

Dibertsioa garreneraino



i30 Fastback N

i30 N-line

MOVE Smart programa

170 €-tik aurrera /hileko

170€-ko 35 kuota
Sarrera: 7.335,8€
Azkeneko kuota:
9.392,42€
U.T.B. %8,08

- 5 urteko bermea km-mugarik gabe
- 5 urteko laguntza errepidean
- 5 urteko mantenimendua
- 5 urteko mapa-eguneraketa
- Itzultzeko konpromisoa
- MyHyundai

Azeleragailua sakatzea eta burmuineraino igotzen zaizkizun kilimak sentitzea. Bihurgune bakoitzean bihotzak agintzen dizun moduan sartzea. Motorrak abiarazterakoan egiten duen soinuarekin emozionatzea. Gidatzerakoan sentitu baina adierazi ezin duzun horri "N Espiritua" deitzen zaio. Bertan dago **Hyundai i30 N Gama Berriaren** kiroltasunaren esentzia. Horrekin, dibertsioa, enegarren potentziara iritsiko da. Izan ere, i30 N Gama guztia ahalik eta errendimendu eta kiroltasun handiena lortzeko diseinatu da, bolantearen aurrean pasioa eta dibertsioa berriz ere senti ditzazun. Baina "N Espiritua" askoz harago doa. Ezagutu ezazu **N-Line** akabera zure i30 gidatuz. Errepideaz goza ezazu berriro, eta eraman dibertsioa **Ngarreneraino Hyundaiaren i30 N eta N-Line Gama Berriarekin.**

OARSO CAR
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPLUZOARAKO
WWW.OARSOCAR.COM

GRUPO EASO MOTOR

ELGOIBAR
Olaso Polig., 17
943 74 14 80

OIARTZUN
Lintzirin Poligonoa, 1
943 49 48 30

HYUNDAI

5 BERMEA MUGARIK GABE

i30 N-LINE eta N Performance Gama: CO₂ emisioak (gr/km): 142-188. Kontsumo mistoa (l/100km): 5,3-12,2. WLTP homologazio-ziklo berriaren arabera lortutako kontsumo- eta emisio-balioak. CO₂ emisioak (gr/km): 126-178 NEDC korrelatu zikloaren arabera lortuak.

Hyundai MOVE Smart finantzazio-eredua i30 5P 1.0 TGI 88.3kW (120CV) N-Line Hyundaiarentzat: Prezioa 20.475,00€. Sarrera 7.335,80€. Eskatutako zenbatekoa 13.139,20€. Formalizazio-komisioa (%3): 394,18€ eskura. 36 epetara. 170 €-ko 35 kuota eta azkeneko kuota 9.392,42€. TIN %6,50. U.T.B. %8,08. Zenbateko Zorduna Guztira 15.736,60€. Epeka Prezioa guztira 23.072,40€. Finantzazioa Cetelem S.L.U. banketxeak aztertu eta onartu behar du. PSP gomendatua Penintsulan eta Balearretan. BEZ, garrasia, matxikailuzko zerga, sustapen-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena eta mantenimendu-eskaintza barne. Hyundai-ra Adierazte Plana aplikatu dateke erabilteko auto baten truke, 6 hilabeterekin, Hyundai berri bat erosten duen bezeroaren titulatasunarekin. Eskaintza 2019/06/30ra arte da baliozkoa. Inustien diren modelotako: Hyundai i30 N-Line, i30 Fastback N Performance, Mantenimendua ibilgailuaren finantzazioari lotua. Hyundai Motor España S.L.U.k bere bezeroei eskaintzen dien km-mugarik gabeko 5 urteko bermea Hyundai Kontzesionarioaren Sare Ofizialean erositako autoetan soilik aplikatuko da, zerbitzu-pasaportearen arabera. Kontsulta itzazu Hyundai MOVE Programaren baldintzak Hyundai kontzesionario-sarean edo www.hyundai.es/hyundaiMOVE webgunean.



Badira gustora egoteko tokiak

ego-gain, 6

KONTENT

4. urteurrena

Kafetegia / Restaurant
Pintxoak / Pub / Taska



943 11 86 91